



UTZITAKOA

**Hainbat hitzordu Mikel Arregi Marinen erailketaren 40. urteurrena gogorarazteko** / 12

**Irurtzunek San Martin festak ospatuko ditu larunbatetik astelehenera bitartean** / 13

**'Erlauntza' antzezlanaren izanena da bihar, larunbata, 19:30ean, lortia kultur gunean** / 21

**'Preso Politikoak Espainia Garaikidean' erakusketa mustu dute lortia kultur gunean** / 23



**Sakandarrak bikain Legazpiko Ziklo-Krosean: Arrieta txapeldun eta Tadeo hirugarrena** / 19



ETXARRI ARANAZko Udala

Etxarri, euskararen  
arnasgunea da,  
euskararen birika,  
euskaraz egiten  
dugulako bizitza,  
arnasa gara.

## Hizkuntzaren hauspoa

Arnasa gara kanpainak herri euskaldunen balioa aitortzen du / 2-4



Etxarri Aranazko ferietan jendetza elkartu zen lasterkan ari zirenei animatzeko.

# Bi hanketako birikei aitortza

Herri euskaldunetan hizkuntza modu naturalean osasuntsu bizi da. Haien garrantzia aitortu, babestu eta hedatzea euskararen normalizaziorako ezinbestekoa da. Herri horietako herritarrak, birikak dira eta, horregatik, aitortza merezi dute

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANAZ Birikek bizitzeko beharrezkoa dugun oxigenoa hartzen dute eta, aldi berean, karbono dioxidoa kanporatzen dute. Birikarik gabe akabo gu. Hizkuntzekin ere antzeko. Biziko badira arnasa hartuko duten birikak behar dituzte. Eta zein dira hizkuntzaren birikak? Gure kasuan euskara asko hitz egiten diren herriak, ikastetxeak, lantokiak, euskaltegiak, elkarteak eta abar. Hizkuntza modu naturalean bizi eta haren transmisioa ziurtatuta dauden espazio horiei euska-

raren arnaguneak deitzen zaie. Haietan euskarak oxigenoa hartzen du eta hizkuntzaren hedapenean laguntzen du.

Horren jakitun dira Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Eta, guztiak bat hartuta, arnaguneen garrantzia aitortu dute Arnasa Gara kanpainaren bidez. Herri euskaldunetan bizi diren euskaldunei azpimarratu nahi die-

te "euskararen ongizatean garrantzia" dutela, hizkuntzaren dako pertsona garrantzitsuak direla eta, horregatik, ahalgundua nahi dituzte, euskararendako birika izaten jarrai dezaten.

## Nolakoa da arnagunea

Hizkuntzaren arnagune diren udalerri euskaldunetan herritarren % 80k edo gehiagok euskara daki. Baina beste ezaugarri batzuk ere badituzte arnaguneek. Batetik, lehen hizkuntza euskara izan ohi da, euskalkian askotan, eta erabat naturala da

euskaraz bizitzea eremu guztietan. Bestetik, hizkuntzaren transmisioa dago: gurasoetatik seme-alabetara transmititu da hizkuntza, modu naturalean. Arnaguneetako hizkuntza "normala" da, eta egunero berritzen ari da, bizilagunek egoera guztietarako erabiltzen dutelako.

Azkenik, hauskortasuna dago. Arnagune diren herriek ez dituzte herritar ugari. Hizkuntza-errealitate ahulagoa dute; beraz, aldaketen aurrean sentikorragoak, hauskorragoak dira. Azken hamarkadetakoa aldaketa sozial eta ekonomikoa eragin zuzena izan dute arnaguneetan. Herrian gertatzen diren aldaketek eragina daukate hiztunengan, hizkuntzaren gain.

Arnagune guztiak ez dira berdinak, errealitate konplexua da. Baina herri euskaldun batzuetako euskaldunen iritziak jaso zituzten aipatu erakundeek 2018an. Eta ondorioztatu zuten, arnaguneetako herritarrak euskaraz bizi daitezke naturaltasun osoz. Hala ere, herritar askok uste dute inguruko herrien hizkuntza-errealitatea hobea dela. Eremu gehienekin alderatuta egoera "hobea" dela aitortzen badute ere, euskararen erabilean gainbehera sumatzen dute beren herrietan. Migratzaile itxura dutenekin askok ez dutela lehen hitza euskaraz egiten aitortu zuten.

Euskararekiko edo norberaren euskalkiarekiko konplexuak dituztela jaso zuten. Aldi berean, herritar askok aipatu dute beren harrotasuna euskalkiarekin lotuta dagoela. Herri batzuetan elkarrizketa elebidunak ohiko bihurtzen ari direla gaztigatu zuten. Gehienek lagun-eremuan euskaraz egiten dute, baina erdalunen bat badago gaztelera salto egiten dutela aipatzen dute. Guztien pertzepzioa zen haurrek gero eta gehiago egiten dutela gaztelera. Herritik ateratzean euskarari eusten dioten gehienak gazteenak dira.

Aldi berean, herri euskaldunetako lantokietan gaztelera duen presentzia altuagatik kez-

ka dute. Merkataritzan eta ostalaritzan hizkuntza nagusia euskara dela nabarmentzen dute, baina telebista gaztelaniaz.

## Garrantziaren zergatia

Herri euskaldunak euskararen birikak, arnaguneak, direla esatea polita da. Baina euskararen eraberritzean arnaguneek duten garrantzia zertan nabaritzen da? Hiru arrazoi daude. Aurrena, eredu dira herri euskaldun horiek, arnaguneak. Zehazki, arnaguneetako herritarrak eredu dira euskararen normalizazioan. Erakusten dute posible dela euskaraz bizi den herria izatea, eta posible dela euskaraz egitea bizitzeko esparru guztietan. Gainera, arnaguneetako erakunde asko ere eredu dira, erakutsi dute euskara politikarako eta administrazioarako hizkuntza ere badela.

Bigarrena, biziberritzea da. Arnaguneetako herritarrak herriko sektore guztietan aritzen dira euskaraz, ahozko komunikazioan bereziki. Eta hizkera informalak eta naturalak hitz eta molde berriak ekartzen dizkio euskarari, hizkuntzarendako ezinbesteko berrikuntza, egunero biziberrituz. Atzenekoa hedapena da. Arnaguneek euren ereduarekin bizitza euskaraz egin daitekeela gogorarazten dute egunero. Bertakoak gaintzeko euskaldunekin euskaraz aritzeko joera dute, euskara-ohiturak hedatuz.

## Serie digitala mustuko da

Arnasa Gara kanpainaren Etxarriko aurkezpena hilaren 17an egingen da. Han "Kartzela" serie digitala mustuko da. Bertsolari Txapelketa Nagusiaren ondoren BECen ezin atera gelditzen diren 6 pertsonen istorioa jaso da. Aktoreen bat ere izanen da.

<p><b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com</p>	<p>KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com</p>	<p>Isolamendu nukleo indartsua</p>	<p>Beirak lehorrean jarrita</p>

**Eneida C / Alfredo A** ETXARRI ARANATZ  
**Euskaraz bizi zara?**

**Josetxo.** Egutero etxean euskaraz hitz egiten dugu. Baina kalean tokatzen dira erderaz egin beharreko momentuak.

**Joxe.** Nahiz eta etxea eta ingurua euskalduna izan toki zehatzetan, izan daiteke denda bat edo taberna bat... ez da posible edo oso zaila da euskaraz hitz egiten segitzea.

**Susanna.** Etxetik atera eta euskaraz bizitzen saiatzen naiz. Toki batzuetan zaila da. Topatzen zarenaren edo elkarrizketa motaren arabera. Kontaktua motza bada euskaraz egiten saiatzen zara. Hemen, segun zertarako, denok ulertzen dugu. Erantzun? Agian gaztelaniaz. Nire kasuan, Katalunian, normala da zuk katalanez hitz egitea eta erdaraz erantzuna jasotzea. Eta zuk katalanez jarraitu. Ez dizu katalanez erantzungo, baina beste pertsonak ulertzen zaitu.

**Irati.** Gazteen artean denak ari gara euskaraz Etxarrin. Astez Gasteizen bizi naiz eta kostatzen zait, baina Etxarrin, beti euskaraz. Denda edo taberna batzuetan ez dakite baina, bestela, bai.

**Urteetan aldaketa nabaritu da?**

**Jtxo.** Bai. Gu 10-15 urte genituela erdaraz asko egiten genuen. Neskatoak gehiago oraindik. Nik uste orduan arrisku handian ikusten zela euskara. 8-10 urterekin kalean erdaraz hasi nintzen. Aitak "belarrimotxa" esan eta kaskarrekoa jotzen zidan. "Penatu ber dakik euskias ez jakitte" esaten zidan baita ere.

**J.** Gu gazte ginenean gaurko gazteak baino joera gehiago genuen erdararako. Gaurko gazteak gure garaian baino askoz gehiago hitz egiten dute.

**Beraz, euskararen egoera eta erabilera hobetu da, ezta?**

**Jtxo.** Bai. Ikastola hasi zenean, lehendabiziko hamar urteetan, ikusten genuen gazteek nahiz eta ikastolara joan kalean erdaraz segitzen zutela. Baina hamarren bat urte pasa eta horrek buelta eman zuen. Niretako kintada pila bat daude gutxi egiten dutenak, 40-45 urtetik 50-55 urtetara.

**Zergatik egiten duzu euskaraz?**

**Jtxo.** Etxean gogor egiten zigtelako. Eta orain kultur-ondare handia delako. Dударik gabe.

**J.** Nire kasuan kontzientzia politikoak ere zer ikusi handia du. Hazten joaten zara eta hizkuntzari ere beste dimentsio bat

# "Arazoa da euskaldunak euskaraz ez egitea"

**JOSETXO ARTIEDA, SUSANNA SUREDA, JOXE ALDASORO ETA IRATI ALTZELAI**

Hainbat adinetako lau etxarriar elkartu ditugu euskararen inguruan haiek dituzten bizipenen berri izateko



Josetxo eta Joxe zutik, Irati eta Susanna eserita.

ematen joaten zara. Ez da bakarrik etxeko hizkuntza, kultura... Nere kasuan beste balio erantsi bat ere badu, esaterako, Euskal Herriarekin lotzen dut.

**S.** Euskal Herrian bizi naizelako hitz egiten dut euskaraz. Eta hizkuntza zoragarria da. Horregatik hasi nintzen ikasten. Niretako hemen euskaraz egitea normaltasuna da. Ez dut imajinatzen hemen bizitzea eta euskara ez jakitea.

**I.** Azkenean, euskaraz hitz egiten duen guztia militantea da, modu batean edo bestean. Atzean ere, nortasuna dago.

**Zuen keinu hori, euskara hitz egitearena, konturatzen zarete oso garrantzitsua izan daitekeela?**

**Jtxo.** Kontzientzia garena uste dut. Gero Iruñera medikuntza joaten zara eta han, igual, ez dugu egiten herrian egiten duguna. Edo abokatuetara edo...

**S.** Saiatu lehenengo hitza beti euskaraz izaten. Baita bigarrena ere.

**J.** Keinua txikiek bere garrantzia dute. Baina batzuetan nahiko nekagarria ere bada. Hemendik kanpo jasotzen dituzu erantzunak... Batzuetan niri zaila egiten

**"GAZTEOK EZ DUGU ZAHARREN EUSKALKI BERA EGITEN, BAINA EUSKALKIAN ARITZEN GARA"**

zait jarrera hori mantentzea hemendik kanpo.

**Gaurko gazteek aurrekoek baino euskarazko erreferente gutxiago dauzkate?**

**J.** Ni gazte nintzenetik euskal kultura asko indartu da. Baina espainiar eta frantziarren kasuan milagatik biderkatu dira. Aldea handitu egin da eta, proportzionalki, erreferentzia euskaldun gutxiago ditugu maila guztietan.

**S.** Toki guztietako erreferente ugari daude. Efimeroak, aldatzeko dira.

**I.** Euskal kultura indartu beharrean euskal kulturara ekarri behar dira beste kulturetako ereduak. Ez dakit euskal kulturarendako onak diren edo ez. Guk txikitan telebista, ETB 1, marrazki bizidun guztiak euskaraz ikusten genituen. Eta orain denak erdaraz ikusten dira eta horrek nik baino gazteagokoengan eragina dauka.

**Gaur egungo umeengan jartzen dugu euskara ez erabiltzearen erantzukizuna. Gurasoengan ez genuke jarri beharko?**

**Jtxo.** Gazteak, normalean, gurasoei egiten ikusten dietena egiten dute. Eta guk Espainiako telebista pizten badugu, ba... haiek normalizat hartuko dute hura ikustea. Guk ez badiegu erakusten guri iruditzen zaiguna, baina guk eginda gero... Hori ez da erraza.

**J.** Urte askotan esperantza osoa irakaskuntzan jarri da. Uste genuen haurrak euskaldunak gero horrek berez ekarriko zuela jendartea euskalduntzea. Ez da horrela. Hezkuntza zati oso garrantzitsua da, baina gizarte-ko atal bat da bakarrik. Erdararen inertzia oso handia da. Agurainen lan egiten dut, eta ez dut uste toki bakarria izanen denik, baina han guraso euskaldunak dauzkan haurrak 2-3 urterekin D ereduaren sartzen da eta 5 urterekin erdaraz daki. Oso adierazgarria da. Prozesu naturala da. Kezkagarria da.

**S.** Hainbeste pantaila. Guk haurrekin zorte handia izan genuen Pirritx eta Porrotzekin. Bideoak jartzen zenituen eta, tira, interesgarriak. Oso aberasgarriak. Baina ETB3 jartzen duzu eta haurrek beste marrazki bizidunekin konparatzen dituzte eta beste kanalak erakargarriagoak zaizkie. Telebista piztu eta euskarazkoa jartzea galdu egin zen. Edo bideoa jarri, edo telebista kanala aldatzen zuten. >>>>



Etxarri Aranatz arnasmugua da. ARTXIBOA

&lt;&lt;&lt;&lt;

**Euskalkiari garrantzia ematen dio-zue?**

**Jtxo.** Nik bai. Inportantea da bizirik egotea. Eta batera euskara batua. Bestela, nola leitu... Biak joan behar dute. Bata ez da bestearen kontra joaten. Aberastu egiten dira elkar.

**I.** Gazteok ez dugu zaharrek egiten duten euskalki bera egiten, baina euskalkian aritzen gara.

**Jtxo.** Horixe badagoela aldaketa. Dudarik gabe. Gu analfabetoak ginen euskaraz. Beharko eta, herrikoa, besterik ez genekien.

**Adineko jendea kanpora joan eta bere euskalkiarekin doa. Gazteagoak joaten gara?**

**J.** Nik urte askotan euskara baturako joera izan dut. Ez dakit zergatik. Orain aldatzen saiatzen ari naiz. Lantokian, lankideekin, saiatzen naiz gero eta jende gehiagorekin Etxarriko euskaraz egiten. Batzuekin egiten dut. Beste batzuekin, segun egoerak. Eztabaidan sartzen garenean, oraindik ez dut lortu. Garrantzitsua da gureari balioa aitortzea.

**S.** Nik batua ikasi nuen. Etxarriara etorri nintzen eta esan nuen: "nik ez dakit zer ikasi dudan, baina hemen ez dute hitz egiten..." Baina gero pixka bat ikasten duzu, deduzituz, erabiliz... Saiatzen naiz.

**J.** Zalantza bat. Igual beste aldera pasatzen ari gara. Ni gero eta gehiago irakurtzen ari naiz kartelak eta gauzak euskalkian.

Ez dakit hori ere ona den. Idatzitako hizkuntza kode bat da, ahozko hizkuntza beste bat da eta, hor, nik zalantzak ditut.

**Jtxo.** Kartela, herrian banatu behar den edo eskualdean, edo Euskal Herrian... Herrikoan egiten duzu herrikoa, ezta?

**J.** Kurioso da. Whatsapp bat jasotzen duzu Espainiako kartel batekin eta jartzen du: "vamos pa'lante". Eta esaten dugu: "jo, zein analfabetoak diren! Ez dakite ezta idazten ere". Eta gero hemen leitzen duzu...

**Jtxo.** Batuan leitzera ohituta bagaude, gero herriko kartel hori, nekez, kostatu egiten dakigu hausnartzea. Eta gure hizkuntza da, baina ez gaude ohituta batuatik kanpo leitzera.

**Zer behar du orain Etxarri?**

**Jtxo.** Herri txikietan, jende kopuru gutxi denez, zaila da alfabetatzeko tresnak, gelak, irakasleak, izatea. Eta, esate baterako, ez gaitzela Ergoienara joan. Arazoa da. Herria nahiz txikiagoa izan, beste tresna batzuk eman behar zaizkio, hiriburu batek dauzkanak adibidez. Hiriburuetan herrietan baino aukera gehiago dituzte, bai hizkuntza eta bai euskal kultura ikasteko.

**S.** Euskaldunek euskaraz hitz egin behar dute. Euskaldun berri batek ikusten badu euskalduna erdarara pasatzen dela, bera deskolokatzen da eta errazagoa zaio erdarara pasatzea.

Baina arazo handia da euskaldunak euskaraz ez egitea.

**J.** Etxarriin dakigunok hitz egitea da inportanteena. Etxarri herri txiki bat, ekosistema txiki bat da. Euskara normalizatzea nahi baldin badugu, erronka segitzen du izaten ezagutza Nafarroan eta Euskal Herrian zabaltea. Nafarroan, bereziki. Hemendik ateratzen garenean, berdin da administrazioa, Osasunbideara edo lantokira joan. Euskaraz ez dakienak guri ere ez digu euskaraz egiten uzten. Batzuetan nahikoa dira pare bat talde handi batean guztiak erdaraz egiteko. Ezagutzaren baita oraindik ez dugu irabazi. Etxarriren eta Sakanako herri batzuen egoera berezia da.

**Etxarriko ahulguneak zeintzuk dira?**

**J.** Ez dakit zein den egoera zehatza osasun etxean. Badakit harrieran euskaldunak daudela. Ni joan naizen azken alditan mediku euskalduna tokatu dakit. Desberdina, baina nire parean euskaldunak izan dira. Baina uste dut pediatrian hutsunea dagoela. Musika eskolaren egoera zehatza zein den ere ez dakit.

**Jtxo.** Euskara ez dakien bertako jendearekin behartuta zaude erdaraz hitz egitera.

**S.** Ez dakiten pertsona konkretuekin... Pediatrarena, bai.

**Eta indarguneak?**

**S.** Ikastola, udala.

**J.** Ikastola betitik. Baina eskolan aspaldi lortu zen A ereduaren kantea. Hori oso positiboa da.

**I.** Gaztetxea.

**J.** Orokorrean jarrera ona dago. Urte askotan jende askok egin du lan diferente oso baliagarria. Emaitzak eman ditu. Aldeko giroa izatea lortu da. Kontzientzia ere: "euskaraz egin behar dugu".

**Nola irudikatzen duzue etorkizuneko Etxarri Aranatz?**

**Jtxo.** Gaztetan ikusitakoa ikusita, nik oso ongi ikusten dut. Euskaldunagoa izanen da.

**S.** Bai.

**I.** Espero baietz.

**J.** Hori nahi dut, baina kezkek badaude. Jendeak gero eta gehiago bidaiatzen du, jende gaztea kanpora joaten da ikastera... Ez dakit hizkuntzarekiko atxikimendua mantenduko ote duen. Beste hizkuntzak oso indartsuak dira. Gaur hartzen dugun erabakien arabera etorkizuna modu batekoa edo bestekoa izanen da. Baikorrak izatea besterik ez daukagu.



Euskaraldiko Nafarroako aurkezpena Iruñean egin zuten iraila akaberan.

## Euskaraldiko batzordeak, trebatzera!

Larunbatean, 10:00etan, Lakuntzako kultur-etxean prestakuntza saioa izanen da

SAKANA

Azaroaren 23an urte bat beteko da Euskaraldia hasi zela. Joan den urteko abenduaren 3ra bitartean euskararen erabilera handitzeko ariketa soziala egin zen estreinako. Euskal Herrian 200.000 pertsonatik gora parte hartu zuten euskararen erabileraren aldeko ekimen indibidual eta aldi berean kolektiboan. Sakandarrek ere bat egin zuten Euskaraldiarekin. Zehazki, 2.615 izan ziren belarriprest eta aho-bizi rolak eskuratu zituztenak. Euskaraldia bukatu bezain laster jakinarazi zen ariketak segida izanen zuela. Eta hala da: 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra izanen da bigarren Euskaraldia, 15 egunez.

Pertsonaren euskararekiko jarreraren arabera bi rol ditu Euskaraldiak: belarriprest eta aho-bizi. Horiekin batera beste izen bat ezagutarazi du ariketa

berriak: ariguneak, euskaraz hitz egiteko aukera ematen duten espazioak dira. Ariguneak izan daitezke administrazioko erakundea lantokiko atal bat edo lantegi osoa, kirol, kultur edo gastronomia elkarte bat... Horiek ere pertsonen moduan Euskaraldian izena eman beharko dute.

Baina Euskaraldia behar bezala antolatzeko herrietan batzordeak sortu beharra dago. Dagoeneko izen ematea zabalik dago [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) web gunean. Ariketa sozial berria behar bezala prestatzeko garaiz hastea egoki zelakoan, herrietako batzordeei zuzendutako prestakuntza saioak antolatu dituzte eta haietako bat Lakuntzan izanen da larunbatean, 10:00etan, kultur etxean. Hartan parte hartu nahi dutenek alde aurretik izena eman beharra

## Euskarazko ahozko adierazpena hobetzeko saioak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek euskarazko ahozko adierazpena hobetzea du helburu Nafarroako Gobernuaren Solaskide programak. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, A, B eta D ereduko 78 eskola taldeek saioak jasoko dituzte 2020an. Euskaraz hitz egiteko erraztasuna irazbazteko saio horiek

ikasleek eskola orduetan jasoko dituzte. Departamentuak jakinarazi duenez, Euskarazko ahozko adierazpena hobetzeko saioak Altsasuko hiru ikastetxetan izanen dira: Sagrado Corazon ikastetxea, Iñigo Aritza ikastola eta Altsasu institutua. Talde bakoitzak 18 saio jasoko ditu.

Solaskide programa garatzeko ardura Hezkuntza Departamentuak AEK-ri eman dio hitzarmen bidez. Nafarroako Gobernuak 98.280 euroko finantzazioa bideratzeko konpromisoa hartu du.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Miguel de Unamuno y Jugo, noizean behin

Amenabarren *Mientras dure la guerra* film arrakastatsuen aitzakian Unamunoren funtsezko puska batzuen berri eguneratua izan dugu azken asteotan. Espainiako intelektualean ezagunenetakoa eta errespetatuenetakoa suertatu da nazioartean ere bilbotarra. Bada, gerra zibilaren atarian eta hasmentan diruz ( 5.000 pezeta) eta hitzez egin zuen Francoren alde, baina hispanitatearen ospakizunekin batera Francoren aurka gartsuki egin zuen film honetan garbi adierazten den bezala.

Bazter gutxi batzuk nahastu ditu oraingoan filmak, Millán Astray legionarioen burua batere ongi irudikatzen ez duelako, baina oro har 1936ko uztail hartaz eragin du debatea, berriz.

Esan dezadan bidenabar, Unamunoren nahikari bat bete balitz Guaixe edota euskarazko irrati, telebista edota webgunerik, are gutxiago euskarazko unibertstatetik ere ez legokeela egun. Entzun diezaiogun aletxo bat: "¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutoria! Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia" (sic, "leismoa" eta guzti). Bilbon 1906an bota zuen diskurtsoa. Gure garaian ere hitz haien oihartzunak euskarafobiaren argudio-multzoan ohorezko tokia okupatzen du tinko eta ergelkeriaren frontispizioan harro.

Kontua da Unamunoren itzalak hainbat pentsalari nahiz politikari espainolistaren bizkarrezurra zeharkatu duela belaunaldi belaunaldi, baita Txillardegia, Salvatore Mitxelena edo Joseba Sarrionandia abertzaleen gogoaren periferia ere. Unamunok bere luze zabalean denetik eskaintzen du: protoabertzale, espainolista amorratua, karlista antxa, anarkisten gertukoa, ordenaren zalea, sozialista, erreazionaria, agnostikoa, kristauzalea...

Giza esperientziaren aztertzaile grinatsu eta erraria, bere egunen azken ilunabarrean militar matxinoen alde egin zuen Errepublikaren onbeharrez ari zelakoan. Salamancako paraninfoko ekitaldiak erreskatatu zuen historiaren aurrean, baina Unamunoren hainbat zama astun eta eldarnio pozoitsu astindu beharrean gaude.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Aurrera egin

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Uste dut iraileko idatzian aipatu genuela udazken mugitua zetorrela jubilatuek. Ia bi urte daramatzagu borrokarekin eta Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduk bukatutzat jotzen du promesen garaia. Egia da zerbait lortu dugula, baina Pentsio Sistema Publikoa bera bermatu gabe dago eta pentsio duinak ere ez.

Urriari ikusi ahal izan duzue jubilatuen borroka indartsu dagoela. Lehenengo egunean (nazioarteko adinekoen eguna) manifestazio eta kontzentrazio adierazgarriak egon ziren Hego Euskal Herriko hiri,

eskualde eta herri askotan. Deigarriagoa Madrilera oinez egin zen ibilaldia iparraldetik eta hegoaldeetik abiatuta, Kongresua inguratu eta, bertan, Pentsioen Sistema Publikoa aldarrikatzeko.

Hala ere aurrera egin beharrean aurkitzen gara; borrokarako partaidetza zabaldu nahi dugu, pentsioen arazoa ez da gaur jubilatuta gauden arazoa, gure aldarrikapenak gehiengoarenak dira: langile, langabetu, gazte, nagusi, gizon zein emakumeenak. Hau horrela izanik, eragile sozial, sindikal eta hainbat mugimendurekin egin den elkarlana emankorra izan da, eta heldu diren hilabeteetarako antolatuta den mobilizazio egutegia aipagarria da. Azaroaren 16ko

manifestazioa, abenduan Parlamentuen aurrean egingo ditugun kontzentrazioak eta, urtarrileko greba orokorra, eragile guzti hauekin partekatua izango dira. Horrela islatuko dugu Jubilatuek eta Pentsionisten arazoak gizarte guztiaren arazoak direla eta gure borroka guztion borroka izan behar duela.

Datozen hauteskundeetatik ateratzen den gobernuari, ateratzen dena atera, ekintzak exijituko dizkiogu eta behingoz, bere ardura bete dezala, berma diezaiela pertsonen bizi duin bat, eta horretarako lanpostu duinak eta pentsio publiko bidezko eta nahikoak zihurta ditzala.

Berdin da nork gobernatu, guk Pentsio Publikoak defendatu!



## OBJEKTIBOTIK

### Udazkenaren alfonbra gorria

Irailarekin iritsi zen udazkena gure hemisferiora. Nahiz eta aurten bere eragina berandutu den, eta orain arte zuhaitzak berde eta tomateak gorri mantendu dituen, aste honetan bere magiaren izpiak bailarara iritsi zaizkigu. Zuhaitzek mendi puntetatik laranja eta marroi ukituak hartu dituzte, gure kaletako espaloiak laranjaz margotzeraino.

Hemen da udazkena, ongi etorria izan zaitez zure hosto gorri, tximinia ketsu eta hezetan usainarekin. Neguko solstizioa arte egon zaitezela gure txokoan gustora.



# guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Felix Alzelai

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Iune Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Gizona zubian egindako konponketari begira.

## Udalak zubiaren oinarria sendotu du

Urak azpijana egina zion zubiaren ipar aldeko eskuineko babesari eta hura berregin dute. Maiteminduen paseoko bihurgunean dagoen harri-lubeta ere konpondu dute, ubeldeak hura desegin eta gero

### UHARTE ARAKIL

Duela bi astera arte Uharthe Arakildik pasatzen zirenek irudi bitxia ikusteko aukera zuten: pala bat ibaian sartuta, zubiaren babes bat konpontzen. Uharthe Arakilgo Udalak aginduta Akier eraikuntza enpresak zubiaren ipar-aldeko oinarria babesteko harrizko egituraren agertutako zuloa konpondu du. Bai zulo hori bai zubiaren ezker aldeko petrilean ibilgailu handi batek eragindako zartadura 2015ean atzeman zituzten. Urte hartako agorrilean uhar tear boluntario talde batek, udaleko bi langileren laguntzaz, zubian zeuden landareak eta zuhaixkak kendu zituzten. Haiek izan ziren zubiaren egoeraz udala gaztigatu zutenak. Uharthe Arakilgo Udalak aspaldi eskatu zien baimena Ebroko Ur Konfederazioari eta Nafarroako Gobernuari lan horiek egiteko.

Uharthe Arakilen iparraldean dagoen ubelde gaineko zubiak 700 bat urte ditu, XIV. mendekoa da. Harresiz inguratuta zegoen

erdi Aroko Uharthe Arakileraz sartzeko bi zubietako bat zen herriaren iparraldean dagoena. Ibaiaz beste aldean garita moduko bat izanen luke zubiak eta babeserako beste horma bat herri aldean. Beste zubia Itturpe bide kalean dago, lurpean. 30 bat metro luze eta 4 metro zabal ditu.

Duela 104 urte zubiaren eskuin aldean erori zen eta zati hura porlanez berregin zuten. 44 urte dira izkina batean zuloa egin eta porlanez konpondu zutela. Eta, azkenik, duela 38 urte zubia zartatu egin zen eta zabaleran, ezker eskuin, burdinazko barrak jarri eta zoruan porlana zabaldu zuten. 2015az geroztik 3.500 kilo baino gehiagoko ibilgailuek ezin dute zubi gainetik pasatu.

**UHARTE ARAKILGO ZUBITIK 3,5 TONA BAINO GEHIAGOKO IBILGAILUAK EZIN DIRA PASATU**

### Harri-lubeta

Ibaiak Uharthe parean egiten duen bihurgunean dagoen harri lubeta berreraiki dute Akier eta Excavaciones Lizarraga enpresen artean. Ubeldeak harriari azpijana egina zien. Ibaian egindako bi lanek 12.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Harri-lubetarik diru-laguntza jasoko du udalak.

### Aseguruen Partzuergoa

Garagartzaroaren 6tik 7ra ezohiko haizeteak izan zirela (Migel erauntsia) ziurtatu du AEMETek. Partzuergoak jakinarazi du Uharthe Arakil kaltetutako udalerrien zerrendan sartu duela. Beraz, haizeteak eragindako kalteen ondorioak pagatuko ditu.



Errozko kontzeju etxea berrikuntza lanak egin eta gero. UTZITAKOIA

## Kontzeju-etxeari errebasoa eman diote

Errozko Kontzejuak bere egoitza den eraikineko teiladura eta fatxadako pintura berritu ditu

### ERROTZ

Errozko kontzeju etxea garai bateko eskolen eraikinean dago. Haren gainean etxebizitza bat du, alokatuta dagoena. Errozko Kontzejuak joan den urtetik bazekien teiltuak itajurak zituela eta, horregatik, teiltuak berritu du. Lanak pasa den astean despiditu zituzten kikusgileek. Horrekin batera, kontzeju etxeko fatxada ere margotu egin dute. Lan horiek Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko funtseko 21.842,27 euroekin Errozko Kontzejuak aurtan egin dituen

lan bakarrak. Izan ere, agorrilean ospatzen dituzten festetarako argiteria publikoko bonbillak LED argiekin ordezkatu zituzten. Lanek 23.225 euroko aurrekontua izan dute. Haietatik 10.668 euro Toki Administrazio Departamentuaren Finantza aldetik Jasangarriak diren Inbertsioen funtsetik jaso zituen Errozko Kontzejuak.

Bestetik, plazako Oskia taberna itxi berri da, hura alokatuta zutenek Arruazuko ostatua hartu dutelako. Kontzejuak lehenbailehen alokatu nahiko luke taberna, "herriak bizia izateko".



UTZITAKOIA

## Adinduek ariketak egiteko

Txirinbulo udal haur eskolak 2017ko irailaren 4an zabaldu zituen ateak. Urtea despeditzerako bere hegoaldean, Auzobide kalearen ondoan, zegoen espazioa plaza bihurtu zuen udalak. Adineko pertsona askok estimatzen duten txokoa bihurtu da plaza. Eta horren jakitun, Altsasuko Udalak adineko pertsonen ariketak egiteko lau gailua jarri ditu.



Izurdiagako zubia. ARTXIBOA

## Kontzejuak Izurdiagarako zubia konpondu du

Uholdeek kaltetutako zubietako bat eta bide zati bat konpontzeaz aparte, babesak jarri ditu bide batean

### URRITZOLA

Arakil eta Larraun ibaiek Urritzolan bat egiten dute. Ubeldeek gainezka egiten dutenean biek bat egin eta ibaien artean dagoen lur eremua urpean uzten dute. Uraren korrontearen ondorioz bi ubeldeen gaineko zubiak kalte handiak izaten dituzte, batez ere iparraldeko petrilean. Eta Urritzola Izurdiagarekin lotzen duen dermioko bidean zulo handiak sortarazten ditu urak. Belarra mozteko garaia iristean traktoreak behar bezala ibiltzeko zuloak estaltzen ibili behar izaten dute.

Horren guztiaren jakitun, Urritzolako Kontzejuak Arakil gaineko zubia konpondu berri du. Fermin Mariñelarena Iraizoz kontzeju-buruak azaldu digunez, zubiko petrila hautsia zegoen eta konpondu egin dute. Gainera, zubiko zorua indartzeko metalzko sarea eta porlana erabili

dute. Eta Izurdiagarako bidea sendotzeko zubia pasa eta hurrengo 50 metroetan ere metalzko sarea eta porlana jarri dituzte.

Aldi berean, Etxarrenera bidean, Aroizko errekatxoaren parean dagoen errebueltan, bidearen bi aldeetan bina bazterbabes jarri dituzte, metro eta erdiko altura dute. "Goizetako izotz horiekin beti atera behar izaten dugu autoren bat ezpondatik". Lan horiek guztiak Nafarroako Gobernuaren Erabilera Askeko Funtzaren bidez jasotako 20.545 euroekin egin ditu kontzejuak.

Urritzola eta Etxarren lotzen dituen dermioko bidearen erztean, ibai aldera, industrialdea egiten ari dira. Hark sarbidea Etxarrengo autobia gaineko zubiaren ondotik izanen du. Zubi ondoan borobil bat egiteko lanak hasita daude dagoeneko.



## Aizkorbeko lanak despedituta

Aizkorbeko ur hornidura, saneamendu, euri-uren sareak eta zorua berritzeko lanak eta argiteria eta telefono sareak lurperatzeko hoditeria jartzeko lanak despedituta daude. Construcciones Valeriano Santesteban SL enpresak egin ditu lanak eta trukean 177.691,7 euro jaso ditu. Udalak argiteria publikoa berritzeko lanak Aldakini eman zizkion, 23.422,68 euro.

## Frontoiko lanak hasita

Kontzeju-etxea eta elkarte hartzen dituen eraikineko iparraldeko horma da Egiarretako frontoiko frontisa. Frontisak 10 metroko altuera du eta kantzak, berriz, 10 metro zabal eta 21 luze ditu. Guztia estaltzeko lanak joan den astean hasi zituen F. Suescun Construcciones enpresak. Frontoia estaltzeko lanek 67.873,49 euroko aurrekontua dute.



## Zein iritzi duzu Sakanako Mankomunitateaz?

Duela bi aste despeditu ziren Sakanako Mankomunitateko Plan Estrategikoko parte hartzeko saioak. Mankomunitateko kudeatzaile Itziar Iribarren Rekartek jakinarazi digunez, parte hartzea polita izan da eta ekarpen ugari jaso dituzte. Hala ere, jakinik hainbat sakandar parte hartze saioetara joaterik izan ez zutela, eta haien iritziak garrantzia dutela, Sakanako Mankomunitateak bilera haietan banatutako galdetegia zabaltzea erabaki du. Horren bidez edozein adineko sakandarrek ibarrari eta Mankomunitateari berari buruz duten iritzia emateko aukera izanen du.

Aipatu galdetegia Sakanako Mankomunitatearen web gunean dago eta han bertan bete daiteke, [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) atarian, hain zuen ere. Baina galdetegia euskarri fisikoan jaso nahi duenak [mank.sakana@gmail.com](mailto:mank.sakana@gmail.com) helbidera mezua idatz dezake, edo 661520404 telefonora hots egin dezake.

GOIZERO 10:00-12:00

**EGUN ON SAKANA**

08:30 Nafarroako albisteak  
Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta  
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM  
**beleixe**

**ZUZENEAN**

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN  
ERAKUSLEIHOA,  
BELEIXE IRRATIA. JARRI  
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

[irratia@beleixe.eus](mailto:irratia@beleixe.eus)

# "Konponketen erraztasunagatik jendea harritu egiten da"

**VICTOR RUIZ LOPEZ DE HEREDIA ETA LUIS DIAZ MEDINA** KAFE KONPONDU Murriztu, berrerabili eta birziklatu filosofia zabaltzeko hitzordua dago azaroko asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara, Gure Etxea eraikineko beheko solairuan

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU Hozkailu bat plazaren erdian. Eta tailerraren berri ematen duen kartela. "Funtzionatzen duen marketin kanpaina" horre-

kin iragartzen da Kafe Konpondu tailerra herri batera iritsi dela. Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuaren bidez urtean ibarrean barna

aritu da eta azaroarekin batera sortzen ikusi duen herrira bueltatu da, Altsasura. Batuta Sakanako elkarteak Birziklatze Laborategia du eta handik bideratzen da Kafe Konpondu.

## Kafea zergatik?

**Luis.** Ideia ez da gurea, aurretik bazen: jendearekin sozializatzeko kafea aitzakia izatea. Ideia da kafea hartzea eta jendea ahalduntzera gonbidatzea. Ikus dezala jendeak askotan gauzak konpontzea ez dela hain zaila. Ezagutza izan behar da. Baina horretarako gaude gu, laguntzeko, beldurra pitta bat gal dezaten. Gauzak konpondu, kafea hartu eta lagunak egin edo pitta bat sozializatu.

## Konpondu hitzarena, erantzun duzu.

**L.** Hau guztia "urrezko hiru arauetatik" heldu da: murriztu, berrerabili, birziklatu. Ingurumenean sinisten dugu eta gure aletxoa jarri nahi dugu, Kafe Konpondu. Jendearen kontzientzia hartzean eragin behar dugula uste dugu: ez dadila izan soilik erosi eta bota, gauzak birziklatu eta berrerabili daitezke. Eta, batez ere, kontsumo murriztea. Hori da Kafe Konponduaren ikuspegia.

## Murriztu, berrerabili, birziklatu ahal izateko, beti aritu batzuk zaudete?

**Victor.** Bai, zerbait badakigu. Sara Rubio Mazkiaran tapizatzen aritzen da eta lan interesgarriak egiten ditu, Luisek denetarik egiten du eta nik elektrizitatea-



Denetarik objektuei konponbidea bilatzen ahalegintzen dira.

rekin eta etxetresna elektrikoekin lotura dutenak. Uda partean bizikleten konponketan laguntzen duen Eiande Argos Unanua ere etortzen da. Arrakasta handia izan du. Konpontzen saiatzen gara. Edo, gutxienik, esaten diegu nondik jo dezaketen. Arazoaren arabera banatzen dugu lana. **Zerekin egiten duzue topo?**

**L.** Denetarik ekartzen dute: hasi kafeontzi edo txigorgailu batetik, segi robot xurgatzailearekin edo ikuzgailuarekin eta izozkailu batekin bukatzeko. Azken hori izurdiagan izan zen.

**Diagnosia eta, ahal bada, konpondu**  
**V.** Gauza asko ezin dira konpondu ordezko piezarik ez dugulako. Baina beste asko konpontzen dira, bai. Askotan azaltzen zaie objektuan zerk egiten duen kale eta ordezko piezak lortzeko egileari deitzeko esaten diegu. Eta konpontzea lortzen du.

## Jendearen aldetik erantzun hori jasotzen duzue?

**V.** Altsasun hiru urte daramatzagu eta jendea pozik heldu da. **L.** Gogoratzen zara hartaz? Ba, badabil. Etortzen den jendearekin harreman ona dago. Halako tailerretan akonpainamendua ere egiten zaie. Esaterako ikuzgailuarena. Ateko torloju bat hautsi zen. Emausko Trapuketarietan lan egiten dugu eta halako torlojuak lortzeko aukera dugu. Horrela konpondu genuen. Eta aurrean bizikleta konpontzera bueltatu da pertsona hori. Baina askotan ez duzu antzeko piezarik, edo egokia den bat. **Kafe Konpondu azaroan altsasuarrendako hitzordua bilakatu da?**

**L.** Bai. Jendea horrela ahalduntzeko laguntza eman zigun aurrena Altsasuko Udala izan zen.

Ondoren, herriz herri ibili gara Sakanako Mankomunitateak eskatuta.

**V.** Mank-en helburua da jendea jabetzea gauzak konponduz hondakin gutxiago sortzen dela. Nafarroako Hondakin Planaren arabera 2010eko datuak kontuan izanik, hondakinen % 10 2020rako murriztu behar da eta % 12 2027rako.

## Jendea zergatik etortzen da Kafe Konpondu: berrerabilpen kontzientzia duelako edo objektuari atxikimendu berezia diolako?

**V.** Biak. Badira batzuk esaten dutenak: zergatik erosi behar dut berria? Konponbiderik badu, konpontzea nahiago dut. Beste batzuek, berriz, haiekin bizi erdia daramaten gauzak ekartzen dizkizute. Hura erabiltzen segitu nahi dute.

## Jendeak tresnen programatutako zahartzearen kontra egiten du?

**L.** Askotan. Programatutako zahartzeaz aparte, enpresek traba ugari jartzen dizkizute. Eskarmentua badugu eta traba horien adibide txigorgailuak dira: normalak beharrezko buru arraroko torlojuak jartzen dituzte... Programatutako zahartzeaz aparte, askotan konponketa egiteko oso zail jartzen dizute.

## Dakien saltsero bat konpontzera etor liteke?

**L.** Zerbaitez dakien jende guztia ongi etorria izanen da. Horrela askoz ere errazago izanen da gauzak konpontzea.

## Jendeak zergatik ekarri behar ditu bere trasteak Kafe Konpondu?

**V.** Ekarrri moduan bueltan eramatea. Hori gertatu ahal zaion gauzarik okerrena da. Gauza gehienak konpondu daitezke. Jendeak ekar ditzala!

**EUSKARALDIA**  
Aurkezpen ekitaldia Nafarroan

Zatoz gurekin Euskaraldia ospatzera!

**ZENTRAL ARETOAN IRUÑEAN**  
**AZAROAK 23, 11:00etan**  
**IBIL BEDI**  
**PETTI**  
**DEMODE QUARTET**

Partenariak: Euzkaltzaren Topagunea, Nafarroako Gobernua, Euzkaltzaren Topagunea, Euzkaltzaren Topagunea, Euzkaltzaren Topagunea



# "Mutil horiei herria eta bihotza ireki"

## MAITE ZIGANDA SEI ELKARTEA

Boluntarioak behar dituzte ikasturte honetarako Iturmendin eta Altsasun. Iritsi berri diren adingabeei harrera egin eta laguntza emateko, astean behin bi orduz

**Eneida C / Alfredo A. SAKANA**

Sei elkartetik diote nerabe horiei laguntza eta haiekin denbora pasatzea "norberarendako opari bat" dela, "norberari oparitutako kalitatezko denbora, norberaren hazkundera eta poztasuna da".

### Zer da Sei elkartea?

Duela 20 urte Iruñean sortu zen elkartea. Irakasle batzuek ikusi zuten euren ikasgeletan nerabe etorkinak sartzen ari zirela eta zailtasunak zituztela klaseko gauzekin. Eta esan zuten: eskola ordutegitik kanpo etxeko lanak egiten eta, esaterako, gaztelania ikasten lagunduko diegu.

### Nerabeekin ari zarete, beraz?

Gauza da 12 eta 17 urte bitarteko nerabeek migratzen dutenean batzuetan dolua pasa behar dutela. Gehienetan Sei elkartean harreraren hartzen ditugu berriz elkartzen ari diren nerabeak. Hau da kasu orokorra: amak Bolivian ume bat izan zuen oso gaztetan, umea izanda ezer ez zeukala ikusi eta bere amari esaten dio Espainia aldera noa, han lan eginen dut, dirua egin eta nire umearekin bizitzeko etxea eginen dut. Urteak pasatzen dira eta 12-15 urte ondoren ekartzan du han utzi zuen semea edo alaba. Jakina, seme-alaba horiendako bere ama amona, izeba



Bakarrak dauden adingabeak mahaiak eta aulkiak mugitzen Iturmendin. NG

edo bizi izandako eta emozionaltasun hori izan duten pertsona hori izan da. Eta bat-batean hori guztia mozten diote. Hemen laguntzen diogu bizitza berriari aurre egiten.

### Baina...

Orain arte berriz elkartzen diren familiak ziren gehienak. Baina duela urte bat ikusi genuen familia guztia etortzearena igotzen ari zela. 2017an familiarik gabeko eta adingabe hiru nerabe etorri ziren. Orain arte urtean hiruzpalauk parte hartzen zuten gure elkartean. Baina 2018an, bat-ba-

tean, ikusi genuen familiarik gabeko adin txikiko kopuru nahikoa handia etorri zela Iruñera. Adin txikikoak direnez, Nafarroako Gobernua haiek zaintzera behartuta dago. Eta hori da Sakanarekin dugun lotura. Bat-batean nerabeak etorri dira eta Nafarroako Gobernuak bat-batean bizilekua, jatekoa eta abar eman behar izan dizkie.

### Zein profil dute nerabe horiek?

Gehienak mutikoak dira, bi neska beste herri batean daude. Gehienek 15 eta 17 urte artean dituzte. Ez pentsatu hemengo 16

urte, baizik eta orain dela 80 urteko hemengo 16 urteak, jada helduak zirela, lan egiteko prest zeudela... Horrela etorri dira mutiko hauek. Ez dira denak elkarrekin etorri, baina gaur egun Nafarroan 260ren bat adin txikiko bizi dira. Nafarroa osoan barna banatu dituzte. Egia da toki batzuetan besteetan baino nerabe gehiago daudela. Etorri direnen asmoa zen ikastea, lan egitea eta bizitza normala izatea. Aurrenak etorri zirenak baliabide gehiago izan zituzten. Orain etorri direnak... 16 urte baino gutxiago dutenak eskoletan sartu dira, baina 16 urte baino gehiago dituztenak beti zailtasunak izan dituzte prestakuntza izateko eta lan egiteko. Horregatik, astearteetan eta ostegunetan Iturmendira eta Altsasura joaten ari gara elkartekoak.

### Zein da zuen egitekoa Sakanan?

Gure asmoa da komunitatea, herria, hurbiltzea mutil horiek ezagutzeko. Horretarako, geletan elkartuko gara. Eurendako gaztelania ikastea oso garrantzitsua da. Horretan laguntzeko Iturmendiko edo Altsasuko edonor boluntario apuntatu daiteke eta, horrela, elkarezagutzea sortzen da. Guretako oso garrantzitsua da ezagutzea. Hor, sartu dizkiguten beldur guztiak erortzen dira, bat-batean. Astearteetan Iturmendin gela batean elkartzen gara eta gaztelania edo behar duten zerbaite ikasten aritzen gara. Batzuetan gauzak ezagutzera joaten gara, gaztaina festak direla eta, Euskal Herriko hostoak eta. Sakanan gauza pila egiten dira. Bada, haiek parte izatea. Garrantzitsuena da beraiei harrerara ona egitea, parte sentitzea eta, horrela, euren bizitza aukera berberekin bizi dezaten. Eta mundu guztia lasai egoteko.

### Boluntarioak behar dituzte, beraz. Nolakoak izan behar dute?

Haiekin taldeetan aritzeko garrantzitsuena: gogoia izan behar dute. Bestetik, 21 urte baino gehiago izatea eskertuko genuke. Baina, ez dakit, esaterako, saskibaloia talde bat dagoela eta jendea behar dutela eta guk badakigu mutiko batek nahi duela saskibaloian jolastu, elkarrekin harremanetan jartzea. Gaztelania noski, baina mutil horiek euskara ikastea gogoia ere badute. Euskara tailerrak egin nahi badituzte... Ongi etorriak izanen dira ideia guztiak. Gauza da, bai Iturmendiko bai Altsasuko bizi-lagunek, aukera izatea mutiko horiekin elkartzeko antolatuta dagoen talde batean. Eta hortik aurrera komunitatea egitea. Horretarako, gogoia eta denbora behar dira.

### Noiz dira saioak?

Asteartetan Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Boluntario izaten interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. Gure web gunean, www.asociacionsei.org, informazio guztia dago. Jendea animatu nahi genuke. Badakit gauzak ez direla... Ez da denborarik izan. Adin txikikoak dira eta zen: orain edo orain. Jendea animatzen dut mutil horiei herria eta bihotza irekitzera. Oso jatorrak dira, eta merezi du. Elkarrengandik ikasiko dugu, ziur!

## "ELKARTZEN GARA ETA GAZTELANIA EDO BEHAR DUTEN ZERBAITE IKASTEN ARITZEN GARA"

**PORTUKO** ostaldegia

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdialain: 948 563 763

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

**ALZATE ERAIKUNTZAK** S.L.

Zubeztia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 - Fax 948 467 600  
www.construccionesealzate.com

**asi**

arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa  
**PSIKOLOGOA PSIKOTERAPEUTA**  
Elkargokide tx.: N-0806

Isidoro Melero 18, behea  
31800 - Altsasu (Nafarroa)  
669 367 422

**BILTOKI**  
TABERNA • JETETXEA

**Pintxoak Bokatak**  
Plater konbinatuak  
Karta

Astehenetik ostiralera  
**Eguneko menua 10€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 - Altsasu

# Pentsio duinen aldekoak azaroaren 16ra begira

Hiriburuetan mobilizazioak egingen dira. Altsasutik Iruñekora joateko autobusa antolatuko dute. Joan nahi dutenek mugimenduko kideekin harremanetan jarri beharko dute

## SAKANA

Etxarri Aranatzen Sasoia Nafarroako pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak deituta 45 pertsona elkartu ziren azokan pentsio duinak aldarrikatzeko. Altsasun 30 inguru izan ziren. Batzuek eta besteek lelo bera zabaldu zuten: "berdin dio nork gobernatu, guk pentsio publiko duinak defendatu".

Hego Euskal Herriko hiriburuetan pentsio duinen aldeko mobilizazioak deitu dituzte azaroaren 16rako. Pentsio duinen mugimenduekin batera deitzaileak dira sindikatuak, mugimendu feminista, ikasleak, gazte mugimendua eta beste. Bestetik, gogorarazi dute pentsio duinen aldeko bigarren urterrenarekin batera, ilbeltzaren aurreneko hamabostaldian greba orokorra deituta dagoela. Euskal Herrian duinki bizi eta lan egin nahi dutela aldarrikatu dute.

## Mezuak

Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduk "bukatzat" jo zuen "promesen garaia" eta mobilizazio orokorrera deitu du. Aitortu dute bi urteko mobilizazioei esker "aldarrikapen apur batzuk lortu genituen, baina ez dira finkatu, hori oztopatzen du-



Pentsio duinen aldeko aldarrikapena Etxarri Aranazko azokara eraman zuten.

ten lan eta pentsioen Legeak indarrean jarraitzen dutelako". Beraz, mugimenduk ez ditu Pentsioen Sistema Publikoa, ez pentsio duinak bermaturik ikusten. Horregatik, Estatuko eta Nafarroako Gobernuei exijitu diete 2020ko aurrekontuetan "lanpostu duinak eta pentsio publiko, bidezko eta nahikoak ziurtatzea".

Batzuek eta besteek hauteskundeetan "tentuz" bozkatzeko eskatu zuten. Beti ere, estatuko koordinatortatik, Coespetik, gogorarazi zuten, "banaketa egiten duen, unibertuala eta belau-

naldien eta lurraldeen artean solidarioa den Pentsio Publikoen Sistemaren alde, pertsona guztiek autonomiaz eta duinki bizitzeko sarrerak bermatzearen alde apustu egiten badute". Coespetik gaztigatu dutenez, "pentsio plan pribatuak, banakako kapitalizazio sistemak, Austriar motxila, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde edo pentsio pribatuen bestelako finantza produktuek pobrezia handiagoa eta soldata ertain eta baxuak dituzten artean desberdintasun handiagoak ekarriko dituzte".

## Lanuzteak deitu ditu Hydron LAB sindikatuak

Asteartean eta ostegunean, txanda guztietan, bi orduko lanuzteak egiteko deia

## IRURTZUN

Lan kategorien kontura akordioa itxi dute Hydro Extrusion enpresak eta UGT eta CCOO sindikatuak. LAB sindikatua ez dago hitzartutako akordioarekin ados. Gaztigatu dutenez, krisiaren aurretik eta ondoren sartu ziren langileen arteko bereizketak segitzen du. LABeko kideen iritziz, "krisiaren aitzakiaz enpresak duela urte batzuk hartu zituen neurrien ondorioz sortu den egoerari ez dio konponbiderik ematen. Lortutako akordioak ez du bukatzen soldata arrakalarekin. Gutxi batzuen egoera partzialki hobetzen du. Eta langileak oraindik kategoriatan gehiagotan banatzen ditu". LAB-ekoek nabarmen dutenez, "nahiz eta langile askok beste langile batzuek egiten duten lan berbera egin, gutxiago kobratzen dute. Desberdintasunak langileoi kalte egiten digute eta bakarrik patronalari egiten dio mesede".

LABek jakinarazi duenez, "langileak akordioaren aurka sinadura bilketa" egin dute. Lan berdina eta soldata bera aldarrikatzeko ordubeteko lanuztea egin zuten astelehenean. Asteartean eta ostegunean, lan txanda baikoitzean, bi orduko lanuzteak egitera deitu du LABek.

## Lan osasunak jarraipen hobea izanen du GH Gueman

Mobilizazio dinamika baten ondoren, zuzendaritzak eta langileak akordioa dute

## BAKAIKU

LABek jakinarazi duenez, lastailaren 17, 24 eta 31ko mobilizazioen ondoren eta atzo lanuztekin hasi aurretik, GH Guemako zuzendaritzak eta enpresa batzordeak lantegiko Lan Osasunerako Batzordeari (LOB) buruzko akordioa lortu dute. LABekoen iritziz akordioak "lan osasunaren jarraipen hobea egiteko marko bat ezartzen du, lan arriskuak kendu eta istripuak gutxitzeko".

Sindikatuak jakinarazi duenez, "pertsonek osasuna eta segurtasuna lehenetsiko da. Prebentzio Zerbitzuak behar diren neurriak hartuko ditu, zuzendaritzaren babesarekin". Bestetik, LOBen bileretara edozein pertsonak hobetzeko edo baloratzeke proposamenak eramateko aukera izanen du eta erantzuna eman beharko zaio. LOBen bileretan enkargatuak, prebentzio zerbitzuak, delegatuak eta behar izanez gero, bakarren batek proposatutako adituak parte hartzeko aukera izanen dute. LOBen hartzen diren erabakiak bete beharrekoak izanen dira, bestela, azalpenak emanen dira. LOBendako aurrekontua zuzendaritzak urte hasieran erabakiko du. Azkenik, LOBen inbertsioak nola egin zehaztu dituzte ere.

## Intxostiapuntako berriemaileak bueltan dira

Gazteria Sailaren jardueren berri eman eta gazteen kezka jasoko dituzte maiatza bitartean

## ALTSASU

Aurreko ikasturtean estreinako Intxostiapunta gazte gunean berriemaileak izan zituen Altsasuko ikastetxe guztietan. Berriemaileak gazte gunearen informazio sarea bihurtu dira eta

herriko gazteen artean Intxostiapuntaren jardunari eta gazteendako intereseko den informazioari buruzko argibideak ematen dituzte ikastetxeetan. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak estreinako esperientziak

"emaitza positiboak" eman dituela ikusita programarekin aurrera segitzea erabaki du.

Intxostiapuntaren eta ikasleen arteko zubi-lana egiteaz zortzi neska-mutil arduratuko dira ikasturte honetan, bina ikastetxe. Guztiek Intxostiapunta gazte gunearekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu dute. Euren egitekoa izanen da lagun eta ikaskideei gazte gunean antolatutako jardueren berri ematea ikastetxeetako Gazte Informazio Gune eta sare sozialen bidez.



Ikasturte honetako zortzi berriemaileak. INTXOSTIAPUNTA GAZTE GUNEA

# San Juan kaleko aparkalekuak segituko du

Udalak lurjabeekin hitzarmena beste hiru urterako berrituko du. Bestetik, Ibarrea industrialdean saneamendu sareak egiteko lanak hasi dira. Udalak, bestalde, heldu den urtean zein abeltzaintza azpiegitura konpondu nahi duen zehaztu du

## ALTSASU

San Juan eta Altzania kaleen arteko lurjabeen eta Altsasuko Udalaren arteko hitzarmena 2016ko azaroan sinatu zen. Horren arabera, lurjabeek etxebizitzak eraikitzen ez dituzten bitartean udalari 585 metro karratu inguruko lursaila autoendako aparkaleku gisa erabiltzen uzten diote. 2017an mustu zen 25 plaza aparkaleku. Bi aldean arteko hitzarmena hilaren akaberan despeditzekoa zen eta udalak hura beste hiru urterako luzatzea erabaki zuen joan den asteazkenean egindako bilkuran.

Altsasun mota horretako bigarren aparkaleku publikoa da San Juan eta Altzania kaleen artean dagoena. Aurrena, Zelandi kalean egin zuten, eskolaren eta osasun etxearen artean. 47 auto sartzen dira eta 2014tik erabilgarri dago. Hurrengo aparkaleku Erkuden eta Bakea kaleetako etxarte batean egingen du udalak. 57 ibilgailurendako aparkaleku egingen du Apezetxea Anaiak SL enpresak aurki. Zoruan asfaltoa zabaldu eta argiteria jarriko du 137.021,64 euroren truke (BEZ barne).

Bestalde, Altsasuko Udalak Otadiko bidea asfaltatzeko proiektua idazteko aurrekontu aldaketa onartu zen joan den asteko bilkuran. Aldi berean, abeltzain-



Bakea eta Erkuden arteko aparkaleku. ARTXIBOA

tza azpiegiturak hobetzeko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdira aurkezteko, Altsasuko Udala askak jarri eta itxiturak hobetzeko eskaera presatzen hasi da.

## Ibarrean lanak

Ibarre industrialdeak ez du saneamendu sarerik eta enpresetako eta etxebizitzetako hondakin urek gaur egun Altzania ibaian bukatzen dute. Isurketa horien gatik Altsasuko Udalak Ebroko Ur Konfederakundeari urtero 1.345,2 euroko isuna pagatzen

dio. Ingurumena zaindu eta isuna kentzeko industrialdeko saneamendu sarea egiteko lehen faseko lanak Apezetxea Anaiak SL enpresari eman zizkion, 242.837,02 euroren truke (BEZ kanpo). Haren langileak beharrezko hodiak sartzeko berriki hasi dira industrialdeko kalea zulatzen.

Lanak azaroa bukatu aurretik despeditu behar ditu enpresak. Saneamendu sare hori Geltoki auzoko azpiegiturarekin lotzeko lanak etorriko dira ondoren. Hala, industrialdea araztegia lotzeko.



Bertsolariak eskola zaharraren eraikinaren barnean. BAKAIKU.INFO

## Bakaikuarrek euren buruari: eskolen eraikinarekin zer egin?

Galdera horri erantzuten hasiko da larunbatean, 18:00etan, udaletxean, udalak deitutako topaketa

## BAKAIKU

Bakaikuko Plan Estrategikoak hurrengo hamar urteetarako herriaren lehentasunak markatu zituen. Haietatik hiru nabarmendu zituzten. Herri galdeketa bidez bakaikuarrek auzolanari buruzko araudi berria berretsi zuten. Etxebizitza eta eskolak hartu zituen eraikina ziren beste bi lehentasunak. Bakaikuko Udalak azken horri heldu dio eta bakaikuarrek larunbatean, 18:00etan, udaletxean egingen den topaketan parte hartzera gonbidatu ditu.

Topaketara joaten direnen artean eraikinari etorkizunean emanen zaion erabilera zehaztuko dute. Dagoeneko zenbait ideia azaldu dira: kultur etxea, gimnasioa, etxebizitza, erabilera anitzetarako gela, gazte espazioa, herriak beharrezkoak dituen zerbitzuentzat espazioa, eta abar.

Baina erabilerarekin batera beste erabaki bat ere hartu behar-

ko dute bakaikuarrek: eraikina zaharberritzea edo bota eta berria jasotzea. Azken aukera horrek, gainera, ekarriko luke inguru guztia berrantolatzea. Udaletik azaldu dutenez, bi aukera horien inguruko proiektuak egin nahi dituzte bakaikuarren eta udalaren artean. Eta aurreratu dutenez, "proposamen horien inguruko azken hitza herritarrek izanen dute". Bakaikuar guztien ikuspegiak beharrezkotzat jo dituzte eta, horregatik, topaketan parte hartzera gonbidatu dituzte udaletik.

LOGSE hezkuntza legeak Lehen Hezkuntza 6 eta 12 urte artekoa izatea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 12 eta 16 urte artekoa izatea ekarri zuen. Aldaketak 94-95 ikasturtean sartu ziren indarrean eta, "eskola maparen berregituraketa" ekarri zuen. Bakaikuko eskolak 1995eko garagarrilean itxi zituen atea.

## Urteko hirugarren hauteskunde deialdia igandean

Gorteak berritzeko boto-kutxak igandean 09:00etatik 20:00etara zabalik izanen dira

## SAKANA

Haren kontrako zentsura mozioak aurrera egitean Mariano Rajoyk (PP) Espainiako presidente izateari utzi zion 2018ko garagarriaren 1ean. Karguan Pedro Sanchezek (PSOE) ordezkatu

zuen. Haren asmoa zen legegintzaldia agortzea, 2020ra arte irautea. Baina aurrekontu proiektuaren kontrako bozketa izan zen Kongresuan otsailaren 13an eta Sanchezek apirilaren 28rako deitu zituen hauteskundeak.

PSOE babes gehien lortu zituen hautagaitza izan zen, baina bilera erronda egin ondoren ez zuen lortu nahikoa babes bere hautagaia presidente izendatzeko eta, horregatik, Espainiako Kongresua berritzeko bigarren hauteskunde deialdia egin zuen Sanchezek. Etzi da hitzordua.

## Bi hauteskunde

Irintarrak hurrengo bi igandetan daude botoa ematera deituta, Espainiako gorteetarako aurrena eta udala berritzeko atzena.



# Mikel Arregi Marin presente izateko egunak

Astelehenean 40 urte beteko dira Mikel Arregi Marin hil zutela. Herri ekimenak larunbaterako mahai-ingurua eta astelehenerako erakusketaren mustutzea eta lore eskaintza antolatu ditu. Udalak, berriz, erakunde-ekitaldia antolatu du astelehenerako

## LAKUNTZA

Ziorditik Lakuntzara bueltan lau lagun auto batean. Guardia Civilak autoari egindako tiroak eta Mikel Arregi Marinen heriotza. Bertsio ofizialaren arabera kontrola saltatu zuten. Lekukoek esan zuten une horretan ez zegoela kontrolik. Astelehenean 40 urte beteko dira. 1981ean egindako epaiketan "arduragabekeria arina" egotzi zieten guardia civilei eta bi hilabeteko espetxe zigorra ezarri zieten.

Gertakari haien "historikoa berreskuratu eta gorde" asmoz sortu da Lakuntzan Mikel Arregi Gogoan herri ekimena. Lakuntzar horiek eskatzen dute Arregi motibazio politikoa duen gatazkaren biktimatzat hartzea eta, ondorioz, berarendako eta bere familiarendako "egia, justizia eta erreparazioa". Ekimenetik gogorarazi dutenez, "motibazio politikoa dela-eta funtzionario publikoek edo eskuin-muturreko taldeek eragindako biktimak aitortu eta erreparatzeko Nafarroako Parlamentuak onartutako 16/2015 Foru Legeari Auzitegi Konstituzionalak helegitea jarri eta bertan behera utzita dauka". Gainera, "zenbait hedabidek informazioa manipulatu Arregi terrorista izendatzen dute".



Herri ekimena lakuntza ugariaren babesaz aurkeztu zen. UTZITAKOIA

Bihar eginen den mahai-inguruan memoriarako bost kasuren berri emanen da. Guztiek ezagutari bera dute: "Estatuaren inpunitea. Ardura hartzeari uko egiten dio". Etxarri Aranazko kultur etxean astelehenetik

hilaren 24ra arte ikusgai izanen da Joseba Zabalza argazkilariak euskal gatazka politiko eta militarrean isilarazitako biktimak ahanzuratik berreskuratzeko 105 kasu bildu ditu. Eraildakoen senideak ageri dira irudietan.

## Egitaraua

### Azaroak 9, larunbata

• **19:00**, Lakuntzako kultur etxean: errepresioa, polizia biolentzia eta euskal gatazka politikoa mahai-ingurua.

### Parte-hartzaileak:

Fermin Rodriguez (German Rodriguez Saizen anaia, 1978ko sanferminetan eraila).

Txaro Arregi (Mikel Arregiren arreba, 1979an eraila).

Eneko Etxeberria (Jose Miel Etxeberria Alvarez, Naparraren anaia, 1980an bahitua eta eraila).

Idoia Zabaltza (Mikel Zabaltza Garateren arreba, 1985an torturatua eta eraila).

Nerea Zabala (Iosu Zabala Salegiren arreba, 1997an eraila).

### Azaroak 11, astelehena. Mikel Arregi Marinen hilketaren 40. urteurrena

• **18:30** Etxarri Aranazko kultur etxean: Gogoan hartzeko izenak erakusketa mustutzea.

• **19:30** Etxarri Aranazko Mikel Arregi Marin parkean: Lore eskaintza monolitoan.



Altsasu Gurasoak taldeko kideak hitza hartu zutenekoa. @ENTZUNALTSASU

## Kazetarien mahai-ingurua Altsasuko auziaz aritzeko

Gaur, 18:30ean, Iortia kultur gunean. "Altsasuko auziak ezkututzen duena" izenburua du mahai-inguruak

### ALTSASU

Altsasuko auziko atxiloketak izan zirela 3 urte beteko dira heldu den ostegunean. Adurrek, Jokinek eta Oihanek ordurako 1.090 egun emanen dituzte preso. Aratz, Iñaki, Jon Ander eta Julen, berriz, 556. Efemeride hori gogoan azarorako hiru urteko labirintoa izeneko programazioa prestatu du Altsasukoak Aske herri plataformak. Txikitetasunetik egia erein musika jaialdiak zabaldu zuten egitaraua, asteartean segida eman zion Santiago Sierraren *Presos Politicos en la España Contemporanea* erakusketaren mustutzeak Iortia kultur gunean asteartean (ikus 23. orria). Eta gaur mahai-ingurua izanen da.

Mahaiaren bueltan hizlari Aritz Intxusta (Gara), Joseba Santamaria (Diario de Noticias), Bea Talegon (Diario 16, La Republica, El Obrero, Cuatro, El Nacional...) eta Bertha Gaztelumendi (EITBn aritua eta film zuzendaria) arituko dira hizketan, Xabier Lapitz (ETB2) moderatzaile dutela. "Bizi dugun errealtate politiko eta sozialaren testuinguruan" aztertuko dute kazetariak Altsasuko auzia. Hau da: boterearen sistema, hedabideak, talde politikoak, giza-mugimenduak... Hizlarien ondoren, mahai-ingurua despeditzeko, Gontzal Mendibilek bi abesti kantatuko ditu.

### Elkartasun klabea

Burunda pilotalekua eta kultur gune pareko zabalgunean jarritako karpa. Horiek izan ziren *Txikitetasunetik egia erein* musika

jaialdiaren eszena-tokiak. 120 musikari aritu ziren larunbatean. Musika-joleak Madrildik, Kataluniatik, Burgostik eta Euskal Herrietik etorri ziren. Musikariak 15:00etatik 08:00etara txandaka pasa ziren oholztatik. Altsasu Gurasoak taldekoak karpako oholtzara igo ziren 19:30ean eta esker ona azaldu zieten musikariei, taldeei eta jaialdira joandako guztiei. Madrildik, Bartzelonatik, Burgos edo Euskal Herrietik etorritakoei, txalo artean, "bihotz bihotzetik esker ona" azaldu zieten.

Gurasoek Egia Erein gazte mugimenduari ere esker ona azaldu zioten: "lan handia egiten ari zarete. Kontatu digutenez oso dinamika zabala osatzen ari zarete Nafarroan zehar". Gaineratu zuten, "musika, historikoki, gizartearen ikuspuntuak adierazteko tresna izan da. Herri eta talde zapalduak, esaterako, erabiltzen dute, duzue, zerbait salatzeko, omentzeko, maitatzeko... eta askotan izugarritzko prezioa ordaintzen, bai erreprezioarekin, bai injustizia jasaten". Horregatik, "hainbeste maite ditugun eta gureak diren letrak egiteko zuenak egiten dituzuen hitz batzuk aipatuko ditugu: elkartasuna, askatasuna". Gurasoek azaldu zuten, "zuen lana, zuen musika ez da hemen geldituko. Nahiz eta hemen jaso eta disfrutatu, ziur egon kartzelara ino eramanen duzuela, dugu. Zeren gaur eskaini diguzue-na elkartasun klabea idatzia dago".

## Lakuntzako Udala

Mikel Arregi Marin Lakuntzako Udaleko zinegotzia zen hil zutenean. Hori dela eta, Lakuntzako Udalak erabaki du haren oroimenezko erakunde-ekitaldia antolatzea. Astelehenean izanen da, 17:00etan, udaletxean.



Intxostiapunta gaztegunean egindako zentzumen ibilbidea. GOZAMENEZ

## Gazteria eta sexualitatea, Gozamenez

Programaren bidez sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzen da

### ALTSASU

Gizartean egon daitekeen sexualitatearen kontzeptu murrizta zabaldu nahian ari dira Gozamenez programako sustatzaileak. Gazteei adierazi nahi diete sexualitatea ez dela genitaleara eta koitora mugatzen, badela beste zerbaite ere. Hor daude, esate baterako, norberaren sexualitaterako eta besteekiko harremanetarako garrantzitsuak diren lotura afektiboak, desioak, fantasiak, autoestimua eta plazera sentitzeko beste modu batzuk. Horregatik, Gozamenez programaren ekitaldiak sexualitatearen

ikuspegi global eta osotua sustatzen ahalegintzen dira. Aldi berean, gazteak haien sexualitatearen garapenean inplikatu nahi dituzte.

Horretarako, Sakanako Gozamenez batzordeak hurrengo bi asteburuetan garatuko den egitaraua prestatu dute. Hiru jarduera izanen dira, guztiak Altsasan.

Sakanako Gozamenez batzordeak antolatu du egitaraua, Altsasuko Udalaren kultura eta gazteria zerbitzuen, Iruñeko Gozamenez batzordearen eta Osasunbidearen laguntzaz.



Aurreko urteko Gazte Eguna. @ARBIZUKOAGA

## Gazte eguna bihar, baina bezpera ere bada

Gazteek gaur egitaraua abiaraziko badute ere, bihar izanen da mamirik handiena

### ARBIZU

Arbizuko Gazte Asanbladak (AGA) antolatuta Gazte eguna ospatuko da bihar. Baina horren atariko, gaur ere izanen dira ekitaldiak. 17:30ean haurrendako film emanaldia iragarri dute AGAkoek. Hura despeditutakoan, 18:30ean, txokolate-jana izanen da. Eta 20:30etik aurrera Argi Bidea elkarteak atek zabalduko ditu, pintxo-poterako.

Biharko Gazte eguna abiarazteko 10:30ean gosaria izanen da. Majo gosalduta, 11:30ean, Kolonbiako egoerari buruzko hitzaldia izanen da. Hura despedituta biri-biri txapelketako final-erdiak eta finalak jokatu dira 13:00etatik aurrera. Lehiaketa horretan bi bikote neurtzen dira eta bikote bakoitzak behin ukitu dezakete baloia, aurkariak egin aurretik. Bazkaltzeko garaia 14:30ean iritsiko zaie. Eta mahaia-aren inguruan eserita daudela Ainhoa Galain bakarlariak kontzertua emanen du 16:00etan. 17:00etan, berriz, koktel lehiaketa antolatu dute AGAkoek. Festa giroan aldarrikapenerako tartea ere aurreikusitako dute, 20:00etako kalejirarekin. Afaltzeko ogitar-tekoak izanen dira 21:00etan eta 23:30etik aurrera Sustrai Berriak eta Soka Lepoan taldeen kontzertuak izanen dira.



Larunbatean hasiko dira festak Irurtzen. ARTXIBOA

## San Martin festekin hiru eguneko ospakizunak

Larunbata eta astelehena bitartean San Martin festak ospatuko dira. Artisau azokan 22 salmahai izanen dira

### IRURTZUN

Irurtzen festak, berez, San Martinekin batera ziren, uzta guztiak jaso, azienda basotik jaitsi eta jendea negurako prestatzen hasia zenean. Irurtzungo festak San Martinen joan den mendeko 60ko hamarkadara arte ospatu ziren. Udazkeneko eguraldi txarrak eta gizarteak industriarako aldaketa egiteak festak Trinitate egunera aldatzea ekarri zuten, gerora, ikasleengatik garilera aldatu badira ere. Hiru data horiek irurtzundarren egutegian ospakizunaren gorri kolorez markatuta daude.

Festa zikloa ixteko, Irurtzungo Kultur Kontseiluak eta udalak San Martin festetako egitaraua antolatu dute.

### Larrazpi

Irurtzungo gazte elkarteak San Martin festetako larunbaterako egitaraua prestatu du. 13:00etan elkartearen bertan jarri dute hitzortuda bermuta hartzeko. 14:00etan herri bazkaria izanen da elkartearen bertan. 18:00etan gazteak karpoteoan abiatuko dira Larrazpitik. 23:00etan Ekaitz Bortitza, Sofokaos eta Titadine&SaLoMonen musika izanen da.

## Egitaraua

### Azaroak 8, ostirala

- **21:00**, Foru plazan: "Luza iezadan/k eskua" antzerki ibiltaria.

Venusek eta Plutonek zentzumenak aktibatzen dituzte, sekretuak xuxurlatu, ametsak saldu... Haiekin topo egiten baldin baduzu bidean... zure patua aldatuko da.

### Azaroak 15, ostirala

- **18:00**, Iortia kultur gunean: Pornografia/erotika, zertaz ari gara? Film laburrak eta foruma.

Hiru ikus-entzunezko izanen dira: Pornografia eta gazteen sexu heziketa (ETBk egindako elkarrizketa); Jovenes, los nuevos clientes de la prostitucion (ETBko 360º saioko atala) eta Salon erotico de Barcelona 2018. Bel Pozueta sexologoak gidatuko du saioa.

### Azaroak 16, larunbata

- **17:00**, Intxostiapunta gazte gunean: zentzumenen ibilbidea.

Ginkana, mural margotzea eta dastatze beroa izanen dira.

## Egitaraua

### Azaroak 9, larunbata

- **23:00** Kontzertua, Larrazpin: Ekintza Bortitza, Sofokaos eta Titadine&SaLoMon. Antolatzailea; Larrazpi gazte elkarte.
- **23:30** Gazte Musc dj-k, Barazki Gunean.

### Azaroak 10, igandea

- **10:30-14:30** Artisau azoka, plazan. (Eurria eginez gero, frontoian).
- **18:00** Dabitxi taldearen La maquina y yo antzerki-zirku ikuskizuna, kultur etxean.
- **18:30** Gozogintza txapelketa eta dastatzea. Gozoak 18:00etan aurkeztu behar dira Erga Larreak elkartearen.

### Azaroak 11, astelehena

- **11:30-13:30** Tramankulu, haurrendako jolasak, plazan. (Eurria eginez gero, frontoian).
- **14:15** Jubilatuen bazkaria. Ondoren dantzaldia.
- **16:30** Mus txapelketa, Iratxo elkartearen. Izen ematea 16:00ak arte.
- **17:30-19:30** Xaibor disko-festa, plazan.
- **18:30** Haurrendako txokolate-jana, plazan. (Zeliakoendako ere).
- **20:00** Zezensuzkoa, Foru plazan.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 8

**ARBIZU** Gazte eguna.  
Haurrendako pelikula eta  
txokolatada.  
17:30etik aurrera, Argi bidea  
elkartean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Black  
stories karta jokoa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
txokoa.

**ALTSASU** Hiru urteko labirintoa.  
Altsasuko auziak ezkututzen  
duena mahai-ingurua.  
18:30ean, lortia kultur gunean.  
Ikus 12. orria.

**ALTSASU** Eurokopa 2020 honi  
ez aurkezpena.  
18:30ean, gaztetxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Euskal presoak Euskal Herrira  
kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske  
kontzentrazioa.  
20:00etan, udaletxe parean.

**ARBIZU** Gazte eguna. Pintxo  
pote bereziya.

20:30ean, Argi bidea elkartean.

**ALTSASU** Gozamenez programa.  
Luza iezadak/n eskua! antzerki  
ibiltariaren emanaldia.  
21:00etan, Foru plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Losers.  
Galtzaileak gazte-helduendako  
antzezlanaren emanaldia.  
22:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Varados Helena  
Tabernaren filmaren  
emanaldia.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 9

**LAKUNTZA** Euskaraldiaren  
prestakuntza saioa.  
10:00etan, kultur etxean.

**ARBIZU** Gazte eguna. Gosaya,  
Kolonbiako egoeraren  
hitzaldiya, biri-biri txapelketa,  
Ainhoa Galain bakarlarria,  
koktel lehiaketa, kalejira  
aldarrikatzailea eta bokatada.  
10:30etik aurrera, Argi bidea  
elkartean.

**LAKUNTZA** Errepresioa, polizia  
biolentzia eta euskal gatazka  
politikoa mahai ingurua.  
18:00etan, kultur etxean.  
Ikus 12. orrian.

**BAKAIKU** Eskolak, zertarako?  
Bakaikuarren topaketa.  
18:00etan, udaletxean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Pin-

pon, xake eta billar txapelketak.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
txokoa.

**ETXARRI ARANATZ** Badator  
Euskal Enbata! Kataluniarekin  
elkartasun jarduera: gaztañak,  
musika eta auzatie.  
19:00etan, plazan.

**ALTSASU** Erlauntza  
antzezlanaren emanaldia.  
Sakanako Berrialagunak,  
Sakanako Mankomunitateak eta  
Altsasuko Udalak antolatuta.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ARBIZU** Gazte eguna.  
Kontzertubek: Sustrai berriak  
eta Soka lepoan.  
22:30ean, Argi bidea elkartean.

## IGANDEA 10

**ALTSASU** San Lorenzo ermitara  
50 km-tako ibilbidea eginen du  
Barranka BTT taldeak.  
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

**ALTSASU** La trocola circo  
konpainiaren *Emportats*  
antzezlanaren emanaldia.  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**IRURTZUN** Circo Dabitxi  
konpainiaren *Makina eta*  
*biok* keinuzko familiarteko  
antzezlanaren emanaldia.  
18:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ** Arnasa  
gara programa. *Kartzela*  
webseriearen estreinaldia bi  
aktoreen parte hartzearekin.  
UEMAK eta Etxarri Aranazko  
Udalak antolatuta.  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Varados Helena  
Tabernaren filmaren emanaldia.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Lazzaro feliz  
zineforum filmaren emanaldia.  
19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal  
Herrira kontzentrazioa.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 11

**ALTSASU** Pentsio duinen alde.  
Sakanako Pentsiodunen eta  
Adinduen Koordinakundea.  
12:00etan, plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Gogoan  
hartzeko izenak erakusketaren  
mustutzea eta bisita gidatua.  
18:00etan, kultur etxean.

## ASTEARTEA 12

**ALTSASU** Elkar Ekinez familia  
espazioa. *Eraiki dezagun*  
*mundu bat* tailerra. Izena  
ematea: 669 72 03 88 edo  
jone@inigoaritz.eus. Iñigo  
Aritzta ikastolak antolatuta.  
17:00etan, Txioka haur ikastolan.

## ASTEAZKENA 13

**ALTSASU** Kafe konpondu.  
17:30etik 19:30era, Gure Etxearen  
eraikinaren beheko solairuan.

**ALTSASU** Literatur solasaldia:  
Patrick Modiano idazlearen  
*Accidente nocturno* liburua.  
18:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 14

**ARBIZU** KoopFabrika. Sakanan  
ekintzailatza sozial eta  
kooperatiboa sustatzeko  
programa. Sustapen saio  
teoriko-praktikoak.  
16:00etatik 20:00etara,  
Utzuganen.

**LAKUNTZA** Jostunen artean.  
Kulturarteko josteta tailerrak.  
17:00etatik 19:00etara,  
udaletxearen bigarren solairuan.

**ALTSASU** Abuelos  
gaurkotasunezko filmaren  
emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Margolaria zineforum  
filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.



**OLAZTI** Guaixe 25.  
urteurrena. Guaixe  
eta Oixe zaharren  
erakusketa  
ibiltaria.

Azaroaren 8ra arte. Astelehenetik  
ostiralera 14:30etik 20:00etara,  
liburutegian.

**ALTSASU** Santiago Sierra  
artistaren *Preso Politikoak*  
*Espania Garaikidean*  
erakusketa. Azaroaren 30era.  
Astelehenetik ostiralera 18:30etik  
21:00etara, larunbatetan emanaldia  
baino ordu bat lehenago eta igandeta  
19:00etatik 21:00etara, lortia kultur  
guneko erakusketa gelan.

**ETXARRI ARANATZ** Gogoan  
hartzeko izenak erakusketa.  
Azaroaren 11tik 24ra. Asteazkenetan  
19:00etatik 21:00etara, ostiraletan  
20:30etik 22:00etara eta igandetan  
18:00etatik 20:00etara.

**ALTSASU** Altsasuko ferietako  
Argazki Rally-ra aurkeztutako  
argazkien erakusketa.  
Azaroaren 11tik 21era. Astelehenetik  
ostiralera 18:30etik 21:00etara,  
larunbatetan emanaldia baino ordu  
bat lehenago eta igandetan  
19:00etatik 21:00etara, lortia kultur  
guneko erabilera anitzetako gelan.

**ALTSASU II.** Mundu Gerrako  
Mauthauseneko kontzentrazio-  
esparruaren argazki originalen  
erakusketa.  
Abenduaren 15era arte. Kukua  
tabernan.

## ZORION AGURRAK



Mitxel Arregi  
Zorionak familiaren  
partetik!!!



Mitxel Arregi  
Zorionak mister, zure  
taldearen partez!!



Mitxel Arregi  
Zorionak Mitxel,  
lagunen partez!!



Mitxel Arregi  
Zorionak aita!!  
Ongi-ongi pasa zure  
50. urtebetzean!!



ESKELA



## Indalecio Lopez

Iturmendin 2019eko azaroaren 5ean hil zen 97 urte zituela

"Udazkenean gure zuhaitzaren azken hostoa erori da baina udaberriari adaxkek loratzen jarraituko dute"

Agur aittune, amiñerekin elkartuko zarela.

Zure bilobak

ESKELA



## Juan Ramos Holgado

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko



Ramos industrial eta langileak

Altsasun, 2019ko azaroaren 6an

ESKELA

## Juan Sahagun Ramos Holgado



A.D.E-ko zure adiskideak

ESKELA



## Juan Ramos Holgado

45 urte hauetan elkarrekin bizi izan dugunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko



Leitza - Razkin familia

Altsasun, 2019ko azaroaren 6an

## IRAGARKI SAILKATUAK

### IKASTAROAk

Sakanako Mankomunitateko **Berdintasun Zerbitzuak** antolatuta du ikastaroa, nesken eta emakumeen ahalduzko sustatzeko. Etxarri Aranatzeko izanen da ikastaroa azaroaren 22an eta 29an, ostiralak, 17:00etatik 20:30era. Izena eman berdintasuna@sakana-mank.eus e-postan azaroak 18a baino lehen. Emagin-ek emanen du tailerra. Lantzeko diren gaiak dira: Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Nola identifikatu? Gure esku-bideen gainean kontzientziatu behar dugu. Zein dira emakumeen aurkako indarkeriaren erroak? Erantzuna. Nola erantzun indarkeria egoerei?

### OPARI

**Txakur kumea** oparitzen da. Interesatuak deitu 667 266 746 ifnora.

### OHARRAK

**Etxarriko irakurle taldea:** abenduaren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta "Egunero hasten delako" gonbidatuta zaude.

**Nafarroa Oinez 2019ri laguntza eman nahi izanez gero egin zure ekarpena ondorengo kontu korronteetan:** Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552 / Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324 / Caixabank ES52 2100 3695 1322 1015 8880. Errenta aitortzerako zure ekarpenaren agiria bidaliko dizute etxera.

**Tuterako ikastolarekin elkartasun afaria Bakai-kun:** Azaroaren 9an elkartean, 15 euroren truke. Elkartean eta estankoa dauden zerrendetan izena eman behar da.

**AHT-ko lanetara mendi marxa:** Mugitu! Mugimenduak azaroaren 23 eta 24ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi marxa bat antolatuta du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzeko eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta marxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltzea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

OROIGARRIA



## Mikel Arregi Marin

XL. urteurrena

Lakutzan, 2019ko azaroaren 11n



"Zure irrifarra, zure alaitasuna gure artean bizirik."

Zure familia

## HERIOTZAK

- **Josefa Garcia-Mascaraque Moreno-Palancas**, azaroaren 1ean Altsasun
- **Juan Ramos Holgado**, azaroaren 5ean Altsasun
- **Indalecio Lopez Lopez**, azaroaren 5ean Iturmendin



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## "Betidanik"

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## Iñigo Aritzako Pilota Txapelketa Urdiainera

**PILOTA** Igandean pilota txapelketako 2. jardunaldia jokatu da Urdiainen, 16:30ean

Duela bi asteburu hasi zen XXII. Iñigo Aritza Ikastolako Pilota Txapelketa. Guztira 47 neska-mutikok hartuko dute parte eta igandean 2. jardunaldia jokatu da, Urdiainen.

Izan ere, eta nobedade moduan, txapelketa ikastola osatzen duten herri guztietan jokatu da. "Orain arte ikastolako frontoian jokatzeko zen, eta finala Altsasuko Burunda pilotalekuan, baina aurten txapelketa Ziordia, Olazti, Urdiain eta Altsasura eramatea erabaki dugu, herri guztiek osatzen dugulako ikastola" adierazi dute antolatzaileek. Etzi 2. jarduna hartuko du Urdiainen.



Ezkurdiak eta Jakak eskertuta txalotu zituzten Labriteko pilota zaleak, finalerdi gogorra eta gero. ETB.COM

# Joseba Ezkurdia Lau T'erdiko finalera

**PILOTA** Aurrelari arbizuarrak Lau T'erdiko finala jokatu du, oso finalerdi sufrituan Erik Jakari 20 eta 22 irabazi eta gero. Aurreko urtean bezala, egungo txapeldunak Altuna III.a izango du aurkari azaroaren 17an Nafarroa Arenan jokatu den finalean

Asteburu pilotazalea izan zen aurreko astekoa. Asko zegoen jokoan, Lau T'erdiko finalerako txartelak, hain zuzen ere.

Lehen finalerdi Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak jokatu zuten, lepo beteta zegoen Labrit pilotalekuan. Dirua arbizuarraren alde atera zen, 100-40. Katedrak Ezkurdia jotzen zuen faborito, baina Erik Jaka irabazteko lanak izango zituela jakina zen, Lizartzakoa ikusgarri dabilelako.

Kantxari egokitzea kostatu egin zitzaion bi pilotariei. Lehen tontetan akats nabarmenak egin zituzten bi pilotariek, bosna berdindu arte. Hortik aurrera, Ezkurdiak hartu zuen agintea eta 12 eta 5 eta 15 eta 6 aurreratu zuen arbizuarra. Baina Jakak ez zuen partida galdutzat eman. 17 eta 7 galtzen ari zela, partidari buelta eman eta gutxika tantoak pilatzen hasi zen Lizartzakoa, bere erritmoa ezarri eta errematean asmatzen hasi eta gero. Tantoak luzatzen hasi ziren, eta Ezkurdia fisikoki betetzen hasi zen. Ho-

rrela, 19-12tik 19-16ra hurbiltzea lortu zuen Jakak eta finalerdiari sekulako emozioa jarri zion.

Bi pilotariek dena eman zuten, eta nekea sumatzen hasi ziren. Horren erakusgarri, tanto bereziki gogor baten ostean lurrean etzanda bukatu zuten bi pilotariek. Bi tanto egin zituen Ezkurdiak eta 21 eta eta 16 aurreratu zuen arbizuarra. Baina Jakak ez zuen amore eman eta 4 tantoko partzialarekin 21 eta 20 gerturatu zen, tanto ikusgarri eta gogorrek. Labrit betetzen zuten pilota zaleak puntako ikuskizunaz gozatzen ari ziren, txalo zaparradak bata bestearen atzetik zetozen, eta Labrit zutik zegoen.

### Ezkurdiak une erabakigarrian eustea lortu zuen

Jakak erremontada gauzatzea lortuko ote zuen, hori zen zalantza. Izan ere, edonork irabazi ahal zuen, baina arbizuarra gai izan zen une erabakigarri horretan eusteko eta, txokoan bolea bikain bat jota, 22 eta 20 irabazi

zuen eta Lau T'erdiko finalera sailkatzea lortu zuen, ederki sufritu eta gero. Bi pilotariak ikusleak txalotzen eta ikusle guztiak bi pilotariei esker onak azaltzen despeditu zen finalerdi.

### Sufrituta

"Partida oso gogorra izan da, erritmo handian jokatuakoa. 17-7ra arte gozatzen ari nintzen: sakearekin asmatzen, piloteoan eroso... Baina gero berak asko jokatu du, kantxan mugitzera behartu nau, asko ibiltzera, eta azkenean bete egin naiz. Banekien sufritu egin beharko zela, azkenean final bat zegoen jokoan, baina zorionez gai izan naiz garaipean lortzeko" adierazi zuen Ezkurdiak bukaeran.

## IAZKO FINALISTA BERBERAK ARIKO DIRA AURTENGO FINALEAN, EZKURDIA ETA ALTUNA

## NKJ: finalak bihar Altsasun

Bihar, larunbatean, Nafarroako Kirol Jolasen finalak jokatu dira Altsasuko Burunda pilotalekuan, 10:30ean.

### NKJ: finalak

- **1. mailako benjaminak:** Balda (Larraun) / Santesteban (Esteribar)
- **1. mailako kimuak:** Nazabal (Oberena) / Olza (Oberena)
- **1. mailako haurrak:** Sanchez (Oberena) / Antimasberes (Barañain)
- **Nafarroako Emakumeen Txapelketa:** Elizalde-Maite Ruiz de Larramendi / Agirre-Olatz Ruiz de Larramendi

### Altuna ikusgarri

Beste finalerdi igandean jokatu zuten Altuna III.ak eta Lasok Bilbon. Ongi jokatu zuen Lasok, baina Altuna III.a ikusgarri aritu zen eta bere erreperitorio guztia eskaini zuen. 22 eta 10 irabazi zuen, lezio bikaina emanen.

Hortaz, iazko Lau T'erdiko finala errepikatuko da aurten eta Ezkurdiak eta Altunak jokatu dute, azaroaren 17an, Nafarroa Arenan. Iazko protagonista berberak dira, baina final ezberdina. Asteartean Joseba Ezkurdiak Arbizuko kiroldegian entrenatu zuen, Juan Martinez de Irujo eta Jokin Etxaniz alboan zituela. Bakarka aritu zen, baina hurrengo egunotan ziurrenik Peio Etxeberria izango du sparring edo entrenamendu kide. Ongi sentitzen dela azaldu du, konfiantzarekin, finala jokatzeke gogotsu. Aste luze bat du aurretik.

## Gazteen kaiola

Egunotan Nafarroako Gazte Mailako Lau T'erdiko bi jardunaldi jokatu dira, tartean Etxarrenean. Irurtzun klubeko Azpirozek 18 eta 7 irabazi zion Armendarizi (Oberena) eta Maiza (Zugarralde) 16 tantotan utzi zuen Imazek (Irurtzun). Asteartean jokatu da hurrengo jardunaldia, Uharten.

## 2. jardunaldia

Iñigo Aritza Txapelketako 2. jardunaldia igandean, 16:30ean, Urdiainen

### Umeak, benjaminak

- Izaro Lanza – Eider Gastesi
- Izei Orabengoa – Iker Ondarra
- Naia Olaiz – Arane Plaza
- Iurgi Reparaz – Ekhi Igeltz
- Garazi Gartzia – Anitz Andia
- Igarki Agirre – Egoi Urtasun
- Bidane Fernandez de Garaialde – Alaine Mendia
- Ekaitz Zufiaurre – Oihan Andueza
- Ekaitz Berdud – Edorta Amillano

### Kimuak

- Alejandro Lopez – Urko Lanza
- Urtzi Garcia – Mikel Arrizabalaga
- Asier Zubiria – Hodei Silva
- Eneko Ganuza – Aser Navarro
- Eñaut Gastesi – Inhar Urteaga

### Haurrak

- Uxue Angiano – Amets Izquierdo
- Aimar Igoa – Oier Carabias
- Iraide Vergara – Alaitz Lanza
- Enaitz Gonzalez – Hodei Ulaiar
- Siets Goikoetxea – June Sanzol
- Patxi Azpeitia – Asier Astiz
- Oier Mitxelena – Oihan Gartzia





# BATZEN GAITUENA

GUAIXE 25 URTEURREN  
GALA

azaroak 15 19:00  
iortia kultur gunean  
altsasu



# Eguberritako Torneo Solidarioa antolatu dute

**ARETO FUTBOLA** Abenduaren 29an izanen da, Ziordian, eta izena ematea zabalik dago. Izena ematean eta torneoan eginen den zozketa erraldoian jasotako guztia, Zizurkoa den Rett sindromea duen Zuriñe neskatilarendako izango da

Eguberritako Areto Futbol Torneo solidarioa antolatu dute Ziordian. Abenduaren 29an jokatuko da, eta jasotako guztia Zizurkoa den eta Rett sindromea duen Zuriñe neskatilarendako izanen da. Izena ematea zabalik dago 620 064 534 telefonora hots eginez (Jose Ramon). Talde bakoitzak 30 euro ordaindu beharoko ditu. Gutxienez 3 partida jokatuko beharoko talde bakoitzak. Torneoaren egunean antolakuntzak zozketa erraldoia egingo du: futbol eta saskibaloia taldeek utzitako kamisetak eta hainbat sari zozketatuko dira.

## Nola lagundu

Zuriñek Rett sindromea du eta gaixotasunari aurre egiteko makina bat tratamendu behar ditu. Familia honi ahalik eta laguntza gehien ematea da Ziordiko Eguberritako Futbol Torneoaren helburua. "Hainbat modutan lagundu daiteke: zuzenean Zuriñeren aldeko diru ekarpena



Ziordiko aurtengo kroasean Markel lagundu zuten eta areto futboleko Zuriñe. UTZITAKOIA

eginez eta trukean torneoko kartelean babesle moduan agertuz; torneoko parte-hartzaileen dako produktu sorten ekarpena eginez eta kartelean babesle moduan agertuz; elkartzasun zozketa erraldorako opariren bat

eginez; Zuriñeren aldeko elkartzasun zozketako txartelak salduz; aipatu zozketarako txarteltxoak erosiz; eta, jakina, Eguberritako Areto Futbol Torneoan parte hartuz" adierazi dute antolakuntzatik.

## SASKIBALOIA CBASK-Jatormanen garaipen polita Fioraren kontra

Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako 5. jardunaldian CBASK-Jatorman taldeak 64 eta 53 irabazi zion Fiora taldeari larunbatean Zelandin, partida oso lehiatua. San Cernin da lider berria (10 puntu), eta CBASK-Jatorman taldeak 7. postuan jarraitzen du (7 puntu). Bihar, larunbatean, Logroñon arituko da CBASK-Jatorman, 18:00etan, Espartero kiroldegian, sailkapenean 12.a den Logrobasket taldearen kontra.

Nafarroako Seniorren 1. Maila Autonomikoko 2. multzoan, berriz, 5. jardunaldia jokatuko da eta CBASK-IFUEL talde altasuarrak garaipen ederra lortu zuen CBSA El Navarrico taldearen kontra, 77 eta 61. Ega Perfil Oncineda da lider berria (9 puntu) eta CBASK-IFUEL taldeak sailkapenean postu bat egin du gora eta 7.a da (5 puntu). Bihar, larunbata, 16:00etan, Olatzen jokatuko du CBASK-IFUEL taldeak, sailkapenean 5.a eta arerio zuzena den Valle de Egues taldearen kontra.

Emakumezkoetan, Nafarroako Kadeteen 2. mailako 5. multzoan asteburuan ez zen partidarik jokatuko. CBASK da lider sailkapenean (4 puntu) eta bihar, larunbatean, Iruñean jokatuko du Cantolagua A taldearen kontra, 9:15ean, Iribarren Kiroldegian.



Galtzetik dator Osasuna Magna. XOTA

## El Pozo Murcia izango du bihar arerio Osasuna Magnak

### ARETO FUTBOLA

Valdepeñasen kontra galdu eta gero garaipena nahi dute berdeek

Osasuna Magna Xotak Valdepeñas taldea hartu zuen aurreko ostiralean Iruñean. Anaitasuna goraino beteta zegoela, 3.000 zaleekin, animoak alde zituen talde berdeak, baina euren akatsengatik eta punteria faltagatik 3 puntuak kanpora joan ziren.

Rafa Usinek 14. minuturako Osasuna Magnaren markagailua mustu zuen, baina talde berdearen hiru akats probestuz hiru gol sartu zituen Valdepeñasek. Azkenean, Araça atezain-jokalaria postuan jarri behar izan zuen Imanol Arregik. Rafa Usinek berdeen bigarren gola sartzea lortu zuen, baina hiru puntuek Iruñetik alde egin zuten.

"Hiru golak oparitu egin ditugu, gure akats oso potoloetatik sortu baitira. Gol aukerak sortu ditugu, baina ez dugu asmatu, baloi asko galdu ditugu eta gaizki ibili gara defentsan, estrategiak gauzatzen eta jokoan. Horrela zaila da irabaztea" adierazi zuen Imanol Arregik partida bukaeran.

Movistar Inter da liderra (21 puntu) eta Osasuna Magna 5. postura jaitsi da (12 puntu). Bihar, larunbata, 13 punturekin sailkapenean 3. den El Pozo Murcia izango du aurkari Osasuna Magnak, 13:00etan (GOL television). Arerio zuzenen arteko lehia oso gogorra espero da.



SOKORRO ALZUETA

## Iratxokoak Ezkabara

**MENDIA** Irurtzango Iratxo elkarteko mendi taldeak Ezkabara irteera egin zuen igandean. Talde bat Berriozartik abiatu zen Ezkabara, oinez, eta bidean, besteak beste, Berriozarko hilotza ikusteko parada izan zuten. Beste taldea zuzenean joan zen Ezkabara. Bertan, guztiek egin zuten bat eta Ezkabako Gotorlekura bisita gidatua egin zuten, Koldo Pla gidari zela.

"Berak azaldu zigun gotorlekuaren eta espetxearen historia beltza. Tartean gertatu zen Ezkabako ihesa, 1938an, 200 hildakotik gora utzi zituena. Ondoren Botilen Hilerria bisitatu eta gotorleku barneko zenbait txoko ere ikusteko aukera izan genuen" azaldu zuen Iratxoko Mikel Goldarazena. Talde ederrak hartu zuen parte irteeran.

# Korrikalari sakandarrak 100. Behobia-Donostiara

**ATLETISMOA** Igandean jokatu da Behobia-Donostia lasterketaren 100. edizioa. Ariko diren 33.379 korrikalarietatik 8.604, hau da, %25,7 emakumezkoak dira, errekorra. Makina bat sakandarrek hartuko dute parte Euskal Herriko atletismoaren festan

Gorteetarako Hauteskunde Orokorrekin batera, igandean jokatu da Fortuna Kirol Elkarteak antolatutako Behobia-Donostia lasterketa. Data borobila da aurten goa, 100. edizioa.

33.379 korrikalari eman dute izena igandean parte hartzeko. Seigarrenez gaintitu da 30.000 parte-hartzaileen muga. Eta azpimarratzekoa da 33.379 korrikalari horien %25,7 emakumeak direla, hau da, 8.604 korrikalari, parte-hartze errekorra. 2025eko edizioan korrikalarien erdiak emakumezkoak izatea nahi du Fortuna klubak, eta bide onean doaz. "Ezarritako plan estrategikoa betetzen ari gara" azaldu zuen Fortuna Kirol Elkarteak Arantza Rojok.

Korrikalarien artean aurpegi oso ezagunak egongo dira. Emakumezkoen artean Aroa Merinok hartuko du irteera, azken hiru ekitaldietako irabazlea eta egungo errekorra duena (01:09:41); eta joan den urtean bigarrena



2018an Mercerok bere 32. Behobia osatu zuen. Aurten faltan botako dute. UTZITAKOIA

izan zen Diana Martin ere aritzekoa da. Gizonezkoetan aurreko urteko garaile Jaume Leiva ez du aurten ariko, baina bai bigarren eta hirugarren sailkatuak, Iraitz Arrospide eta Ivan Fernandez.

Aurtengo Behobia-Donostia lasterketako gonbidatu berezia Haile Gebrselassie korrikalari ohi etiopiarra izango da, besteak beste Olinpiar Jokoetan bi urrezko domina irabazi zituena. Dortsal bat gorde diote, nahiz eta

afrikarrak oraindik ez duen baieztatu ariko den ala ez.

## 20 km ezagun

Ibilbidea ohikoa izango da: Behobiatik abiatu eta Donostiako Bulebarrean amaituko da, 20 km osatuta. Goizeko 09:45ean urritasunen bat duten parte-hartzaileak abiatuko dira, 9:50ean irritalariek ekingo diote probari. Korrikalarien artean eliteko emakumeak 10:10ean aterako dira eta eliteko gizonezkoak 10:15ean. Ondoren, izena eman duten gainontzeko korrikalariak abiatuko dira, taldetan banatuta.

Eguraldi iragarpenak euria eta hotza egingo duela iragartzen du, 10 gradu inguruko tenperatura. Horrekin batera, haizea da antolatzaileen kezka. Baina horrek ez ditu korrikalariak kikituko eta Donostia atletismoaren festa izango da.

## Aurten ez da Behobia Gaztea egongo

Bezperan, larunbatean, Behobia Txikia jokatu da Anoetako estadio txikian, 15:00etan hasita. 12 urte bitarteko 2.500 haur ariko dira. Bestalde, antolakuntzak aurten ezingo du antolatu 14 eta 18 urte bitarteko gazteak hartzen zituen Behobia Gaztea, hauteskunde orokorrak eta lasterketak bat egiteagatik, ibilbideak bi hautesleki eragiten diolako. Horrela, 16 urtetik gorakoei proba nagusian aritzeko baimena eman diete.

## Sakandarrak

2018an proba osatu zuten 24.914 korrikalarien artean 72 sakandar zeuden, eta Mikel Satrustegi arruazuarra (1:16:15) eta Erkuden San Martin etxarriarra (1:31:54) izan ziren azkarrenak. Aipatzekoa da Joxemari Mercero beterano unanarrak bere 32. Behobia-Donostia osatu zuela 79 urterekin. Aurten utzi gintuen eta tamalez ezingo da aritu. Aurten ere makina bat sakandar animatuko dira Behobia eta Donostia lotzera.

## Sakandarrak harresietan

Ostiralean 4.900 korrikalari baino gehiagok hartu zuten parte Iruñeko Harresien Lasterketan, euripean, 3 distantzietan. Harresien Lasterketan (15 km) Iker Flores urdiaindarrak 32.a iritsi zen (1:02:54) eta Maria Goikoetxea etxarriarra 330.a (1:15:41), lehen sakandarrak izan ziren. Gotorleku Lasterketan (10 km), Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak 6.a sailkatu zen (38:17) eta Maalen Beraza irintarra 397.a (53:32). Forteko Lasterketan (5 km) Ruben Mendieta olaztiarra 4.a sartu zen (17:09) eta Amaia Aristu olaztiarra 172.a (25:08).

## Igor Arrieta junior txapelduna Legazpiko Ziklo-Krosean

**ZIKLO-KROSA** Sakana Groupeko bere taldekide Aimar Tadeo hirugarrena sailkatu zen kadeteen mailan

Errepideko txirrindularitza denboraldia despedituta, ziklo-kros denboraldia hasi berria da. Ostiralean Legazpiko IX. Ziklo-Krosa jokatu zen, proba prestigiotsua. Bihurgunez, aldapez eta lohiaz betetako 2,5 kilometroko zirkuituan kadeteek, juniorrek, 23 urtez azpikoek, eliteek eta masterrek hartu zuten parte.

### Igor Arrieta ikusgarri

Juniorren mailan 5 itzuli egin zizkieten zirkuituari eta Sakana Group-Aralar talde lakuntzarreko Igor Arrietak lur gainean

errepidean bezain ongi moldatzen dela erakutsi zuen. Uharte Arakilgoak proba ikusgarria egin zuen eta bakar-bakarrik iritsi zen helmugara (40:09), Electroalvesa-Etorkiko Unai Unzaga bigarrenari 42 segundo aterata. Bere taldekide Ion Erdozia 19.a sartu zen (46:58). Burundako Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi altsasuarrak 20.a sailkatu zen (47:06), Jon Chamorro urdiaindarrak 29.a (50:43) eta Oihan Etxeberria urdiaindarrak 37.a (47:28).

Kadeteetan ere sakandar bat podium gainean ikusi genuen.

Vicinay taldeko Aimar Orrantia izan zen azkarrena (34:04). Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo lakuntzarra oso ongi ibili zen eta hirugarrena sailkatu zen (34:25), 20 segundora. Bere taldekide Aritz Oiarbide etxarriarra 21. postuan sailkatu zen (39:34) eta Burunda Klubeko Quesos Albeniz taldeko Mikel Rejil 23.a sartu zen (40:15) eta Mikel Uncilla 24.a (40:27).

### Abenduaren 14an Urdiaingo Ziklo-Krosa jokatu da

Burunda Txirrindularitza Taldeak abenduaren 14an ziklo-kros lasterketa antolatuko du Urdiaingen. Beraz, kirol ikusgarri eta eder honetaz gozatzeko aukera izango dugu Sakanan. Lehenengo aldia da Burunda klubak halako lasterketa antolatzen duela, baina euren txirrindula-



Igor Arrietak junior mailako lasterketa agindu zuen. ANGEL ELORZA

riak ziklo-krosean aritzen direnez, pausua ematera animatu dira, eta proba jarraitzea animatu dituzte sakandarrak. Burunda klubetik aipatu dutenez,

Urdiaingo Ziklo-Krosa Benigno Mendia zenari omenaldi xumea izango da, Sakanan ziklokrosean hasi zen lehenetarikoa izan zelako.

# Preferenteari eutsi nahi dio Lagun Arteak

**FUTBOLA** Erregional mailatik preferentera igo eta gero, kategoria horri eustea da aurtengo helburua. Guztira 7 talde ditu Lagun Arteak, tartean aurten sortu berri den emakumeena, eta 110 futbolari trebatzen dira Lakuntzako klubean

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA  
Duela bi denboraldi maila galdu zuen Lakuntzako Lagun Arteak futbol taldeak eta preferente mailatik erregional mailara jaitsi zen. Iaz balentria lortu zuten lakuntzarrek: erregionaleko liga erregularra irabazi zuten eta goera fasean bigarrenak sailkatu ziren, Ardoi irabazlearengandik puntu bakar batera. Horrela, urte bakarrean mailaz igo zuten zuten eta aurten, 2019/2020 denboraldian, atzera ere preferente mailan dabil Lagun Arteak, Etxarri Aranatz taldearekin batera.

“Iaz sekulako denboraldia egin genuen: preferentera igo zeko helburua lortu genuen, kategoria galdu eta denboraldi batean. Aurtengo helburua preferente mailari eustea da; hau da, azkarrenen salbazioa lortzea, eta horrekin batera disfrutatzea; izan ere, jendeak disfrutatzen duenean ateratzen dira gauzak ongi. Uste dut taldea badugula preferente mailari eusteko, eta hortik aurrera, sailkapenean ahalik eta gorenen sailkatu nahiko genuke” adierazi du Lagun Arteako idazkari Oscar Maizak.

Aurreko denboraldiko Jesus Alberto Martin Davilak jarraitzen du entrenatzaile lanetan, David Herrera Cuelloren laguntzarekin. Iaz baja garrantzitsuak izan zituen taldeak, Xabier Burillo kapitain lakuntzarrena, esaterako, urte luze klubean egon eta gero. Markel Erdoziak ere taldea utzi zuen, Eneko Cruz eta David Herrerekin batera. Baina jubentzetatik igo direnekin eta klubera itzuli eta etorri direnekin talde polita osatu dute.

Dagoeneko 7 jardunaldi jokatu dira eta 3 partida irabazi ditu Lagun Arteak, 2 galdu ditu eta beste 2 berdindu. Baina liga luzea da, 30 jardunaldi ditu, eta edozer gerta daiteke. Oscar Maizaren esanetan, egungo liderra, Maila Autonomikotik Preferentera jaitsi den Beti Casadano da aurten-



Lagun Artearen igandeko alineazioa, Ardoiren kontra. LAGUN ARTEA

## "AZKARRENEN SALBAZIOA LORTZEA ETA DISFRUTATZEA DIRA AURTENGO ERRONKAK"

go arerio gogorrenetako bat. “Ziurrenik denboraldi bukaeran ere goian egongo da Beti, arerio indartsuenetakoa da. Hain zuzen ere, beraren kontra arituko gara larunbatean Casedan, eta partida zaila espero dugu” aipatu du.

### 110 futbolari Lakuntzan

Herri txikia izateko Lakuntzako futbol taldearen osasuna bikaina

da. Aurten 7 talde ditu Lagun Arteak: preferente mailakoa, jubentzetatik mailakoa, kadeteen mailakoa, haurren mailakoa, kimuen mailakoa eta aurten sortu berri den Lagun Arteak emakumezkoen taldea. Guztira 110 jokalaririk ari dira Lagun Artean, horietatik 108 sakandarrak. Beraz, harrobia ziurtatuta du Preferente mailako taldeak eta garai ona bizi dute lakuntzarrek.

### Emakumezkoen taldea sortu da, baina aurten ez da lehiatuko

Kimuen eta haurren mailan batera lehiatzen dira neskek eta mutilak, baina kadete mailatik gora mutilak eta neskek banatu egiten dira. Horrela, haurren



Lagun Arteak klubeko talde guztietako futbolariak elkarrekin, Zelai Berrin. LAGUN ARTEA

## Lagun Arteak

### 2019/2020 Preferente taldea

- **Atezainak:** Angel Herrera, Gariquito Maiza eta Josu Arroki.
- **Defentsak:** Igantzi Jauregi, Ion Ollo, Kepa Olias, Xabi Bakaikoa, Etor Alegria, Xabi Maiza eta Mikel Cordero.
- **Erdilariak:** Mikel Agirre, Iñaki Mendieta, Mimoune Jaamout, Iñaki Berastegi, Iker Zabalo, Jesus Mari Ripa, Nabil Esobai, Iokin Lobo, Anton Vela eta Gaizka Sagarzazu.
- **Aurrelariak:** Unai Bakaikoa, Unai Zubiria, Maurice Gomis, Ander Unanua eta Yonatan Davila.
- **Entrenatzailea:** Jesus Alberto Martin Davila.
- **2. entrenatzailea:** David Herrera Cuello.

maila bukatuta talderik gabe geratu ziren neska futbolariak lakuntzarren eskakizunari jarraiki, emakumezkoen Lagun Arteak futbol taldea sortzeko deialdia egin zuen klubak. Deialdiak fruitua izan zuen, eta taldea osatu da, baina aurten ez da lehiatuko. Urte honetan ongi entrenatu nahi du taldeak, futbolari asko zerotik hasi baitira. Horrela, lagunarteko partidak jokatzeko behar bezala prestatzea da euren erronka.

### Junta berbera

Lagun Arteak taldeko junta iaz berriro zen eta bere horretan jarraitzen du. Jabier Hernandez Santana da presidentea, Jesus Zubiria presidenteordea, Josu Arraiza diruzaina eta Oskar Maiza idazkaria. Bokalak ondo koak dira: Jabier Gasko, Jabier Andueza, Juan Ignacio Mendieta, Diego Cruz, Asier Arregi, Juan Ignazio Maiza, Juntxo Arraiza eta Jose Agirre. Juntako kide beteranoen laguntza dute.

## FUTBOL PREFERENTEA

### 7. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagun Arteak - Ardoi B	0-2
Etxarri Aranatz - Ondalan	2-0

### SAILKAPENA

#### PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Beti Casadano	13
7	Lakuntzako Lagun Arteak	11
12	Etxarri Aranatz	9

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### LARUNBATEAN

15:30	Beti Casadano - Lagun ( <i>Kaseda</i> )
15:45	Arrotxapea - Etxarri ( <i>El Irati</i> )

### Txanponaren bi aldeak

Lakuntzan, 6. minutuan Ardoi aurreratu zitzaion Lagun Arteari. Lakuntzarrek modu guztietara saiatu ziren, baina ez zuten asmatu eta 2. zatian bigarren gola sartu zuen Zizurko Ardoik. Horrek min handia egin zion Laguni eta horrela despeditu zen partida. Etxarri Aranatz, aldiz, ongi aritu ziren Etxarri eta Ondalan. Villatuertakoek aukera gehiago izan zituzten, baina ez zuten Etxarriren atea zultatu. 2. zatian Perkazek eta Xabatek sartutako golei esker 3 puntuak Etxarri geratu ziren.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 7. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Gazte Berriak - Altsasu	2-2
-------------------------	-----

### SAILKAPENA

#### ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1	Amaya	17
11	Altsasu	5

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

15:30	Altsasu - Doneztebe ( <i>Dantzaleku</i> )
-------	---

### Altsasuk puntu bat ekarri zuen

Antsoainen, Gazte Berriak taldea aurreratu zen markagailuan baina baina berdindu zuen Altsasuk, Imanoli esker. Bigarren gola sartu zuten Iruñerrikoek, baina Aizkorren golarekin baina berdindu zuen Altsasuk.

## EMAKUMEEN ERREG.

### 9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Gazte Berriak - Altsasu	0-1
-------------------------	-----

### SAILKAPENA

#### EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Castejon	24
7	Altsasu	15

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

12:00	Altsasu - Kirol Sport ( <i>Dantzaleku</i> )
-------	---

### Bosgarren garaipena

Altsasuko nesken bolada onak jarraipena du eta Gazte Berriak irabazi eta gero, sailkapenean 7.ak dira.



Nafarroako 'Encuentros de Arte Joven' programaren saridunak. NAFARROAKO GOBERNUA

## "Esperientzia bat" sortzea bilatzen duen artea, sarituta

Irati Urrestarazu artista altsasuarrak Nafarroako 2019ko Encuentros de Arte Joven saria irabazi du

ALTSASU

"Ilusioa, poza eta lanean jarraitzeko gogoia". Irati Urrestarazu artista altsasuarrak Nafarroako Gobernuko *Encuentros de arte joven* 2019ko edizioa irabazi du, arte plastikoaren kategorian. *Laurogeita Hamargarrenean* instalazioari esker eskuratu zuen saria altsasuarrak. "Instalazio eskultorikoa aurkeztu nuen, objektu eta estruktura ezberdinen artean egindako komposizioa".

Nafarroan diziplina desberdinetako sortzaile gazteak sustatzeko sariak dira *Encuentros de arte joven de Navarra*. Musika-riak, antzerki taldeak, ikus-entzunezkoak, diseinua eta arte plastiko kategorietan parte har daiteke. "Lagun batek parte hartza bultzatu ninduen, aurreko erakusketa prestatzen ari nintzenean". Aukera paregabea iruditu zitzaion artistari.

Izan ere, 2019. urtean Urrestarazuren urtea izaten ari da. Uztailen Barriak 2019 programaren barruan Rekalde Aretoan erakusketa egiteko aukera izan zuen, eta orain Nafarroako Gobernuko gazteendako arte topaketan saria irabazi du. Egindako lanarekin "oso pozik" gelditu zen altsasuarra eta "aukerak nituela" ikusi zuen. "Hala ere, hala-koetan inoiz ezin da ezer ziurtzat hartu, beraz, azken momentura arte urduritasuna mantentzen da". Oraingoan, "zortea" izan du. Epaimahaia Julie Laymond, Iker Serrano eta Txuspo Poyo artistek osatu zuten, eta maila altuko proposamenak aurkeztu zirela

esan zuten eta "oso zaila" izan zela bat aukeratzea. "Lan asko dira eta estilo oso desberdinak, ziur zaila izan dela epaile izatea", adierazi du Urrestarazuk.

Rekalde Aretoan egin zuen erakusketaren "sintesia" aurkeztu du *Encuentros de Arte Joven* 2019ra. "Material plastikoak, sintetikoak, koloreak, eskaiolak, burdinak, erretxinak nahastu ditut, eta haien arteko konbinazioak sortu ditut". Emaitza *Laurogeita Hamargarrenean* instalazio eskultorikoa da. "Zerbait kontatu baino, niri interesatzen zaizkidan gauzak daude bertan". "Esperientzia bat" sortu nahi du Urrestarazuk bere artearekin: "ni eta lanaren artekoa, eta lana eta ikuslearen artekoa".

### Komunikazio kodeak

"Sentsazioak" bilatzen ditu artistak. "Gustatu ahal zaizu edo ez baina zer edo zer eragin dizu". Aurkeztutako lanaren aurrean "ulertu behar denaren" ideiarekin amaitu behar dela dio: "edozein komunikaziok bere kodeak ditu, eta honek ere bereak ditu". "Eten-gabe gauzak eta objektuak" egiten ditu eta beraien arteko "konbinazioekin" jolasten du. "Objektu batek bakarrik agian ez du ezer esaten, baina beste baten ondoan jarrita, biek sortzen duten erlazioak bai". Horrela sortzen ditu artistak instalazioak, "espazioa nirea egiten eta betetzen".

Aurten BilbaoArte fundazioko bekaduna da ere, eta hurrengo erakusketa prestatzen ari da.

# "Komedia politenak dramatik datoz"

SARA COZAR AKTOREA

'Erlauntza' antzezlanaren protagonista izanen da bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Sei emakume dira protagonistak, haien artean, Sara Cozar aktorea

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Sakanako Berrialagunek, Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak antolatuta Erlauntza antzezlanaren, euskaraz, izanen da bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Txikitako sei neska lagun kuadrilen baten asteburu kontatzen du lanak. Kepa Errastik idatzi du antzezlanaren eta Mireia Gabi-londo zuzendaria da. Sei emakume dira protagonistak: Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz, Nerea Arnedo Vito Rogado eta Sara Cozar. Elkarrekin lan egitea antzezlan honen "oparietako bat" izan dela esan du Cozarrek.

**Sei lagun, landa etxe bat, asteburu bat eta ezkondu aurreko agur-festa bat. Horrela ikusita, dena ongi, ez?**

Horrela ikusita dena oso ongi. Hori da abiapuntua eta dena oso ongi hasten da. Giro oso ona dute, sei lagun agertzen dira, ospatzeko eta ongi pasatzeko gogoekin. Baina bat-batean beraietako bategen aurpegira botatzen dien beraien partetik sentitu duen gabezia bat. Horrek sortzen du horrelako egoera bat denak hasten direla bata besteari gauzak leporatzen. Hori dena alkohol eta droga pixka batekin nahastuta. Sekulakoa sortzen da.

**Zer gai jorratzen ditu?**

Komedia bat da, baina ez da komedia hutsa. Badu drama ere. Komedia politenak eta handienak dramatik datoz. Gauza asko kontatzen dira. Kasu honetan sei emakume direnez emakumeei gertatzen zaizkigun gauzak. Gizakioi gertatzen zaizkigun gauzak, azken finean: beldurrak, nahiak... Sei pertsonaia daude eta bakoitzari gauza bat gertatzen zaio eta bakoitzak bere momentua du.

**Publikoa identifikatuta sentitzen da?**

Bai. Kuadrillan ikusteko oso antzezlan polita da. Jendea iden-



'Erlauntza' antzezlanaren protagonista. UTZITAKOIA

## "ANTZEZLAN HAU OPARI BAT IZAN DA GURETZAT; ARRAZOI ONENA GU SEIAK ELKARTZEA IZAN DA"

tifikatuta sentitzen da, bakoitzari pertsonaia batekin. Esaten digute "ni nintzen zu". Gero kuadrillako gauzak hitz egiteko aukera ematen du ere, antzezlanetik ateratzerakoan. Batzuk haiena horrelakoa dela esaten dute, eta nik pentsatzen dut a zer kuadrilla duen. Antzezlaneko kuadrilla latza delako. Jendeak errepikatu du ere. Gauza asko gertatzen direlako.

**Sei aktore zarete, nolakoa da zuen arteko harremana?**

Antzezlan hau opari bat izan da guretzat, arrazoi askorengatik. Hasteko, antzezlan oso ona da eta egiteko oso dibertigarria. Oso ondo pasatzen dugu taularen gainean. Batzuetan gertatzen dira horrelakoak. Baina gertatu zaigun onena gu seiok elkartzea izan da. Lehen Itziar Atienza zegoen, orain Vito Rogado eta gero Dorleta Urretabizkaia eto-

rriko da. Eta gure artean oso giro ona dago hasieratik. Oso ondo pasatzen dugu antzokitik kanpo ere. Hori ikuskizunean islatzen da. Ikusten da. Orokorrean lan borobila da.

**Nola izan da 'Erlauntza' prestatzea?**

Prozesua oso dibertigarria izan da. Duela urte eta erdi estreinatuta genuen. Victoria Eugenia Teatroan entseatzen egon ginen bi hilabetez. Zorte handia izan genuen Kepa Errasti egilea zuzendari laguntzailea izan delako. Hasiera zenetik orain dena asko aldatu da. Askatasuna izan dugu eta, horregatik, prozesua aberasgarria, dibertigarria eta emankorra izan.

**Zer nabarmenduko zenuke?**

Oso zaila da bat aukeratzea. Horrenbeste gauza gertatzen dira jendea berriz ikustera etortzen dela gauzak galtzen dituelako. Sei pertsonaia dira, bakoitza bere arazoekin eta denbora guztian seiak agertokian daude. Momentu asko oso onak daude.

**Oso arrakastatsua izaten ari da. Espero zenuten?**

Inoiz ez da jakiten, baina entseguekin hasi ginenean oso ona zela ikusten zen. Arrakasta itzela izaten ari da.



'Losers. Galtzaileak' antzezlaren une bat. TXALO PRODUKZIOAK

## 'Losers' antzezlana Garmendia eta Plazaola aktoreekin

Gaur, ostirala, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean 'Losers. Galtzaileak' antzezlana izanen da

ETXARRI ARANATZ

Manuel eta Sandra lagunak dira. Ia berrogei urte dituzte eta gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: umerik ez, bikoterik ez eta diruz urri, eta etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe. *Losers. Galtzaileak* antzezlaren sinopsia da, eta istorioa nola jarraitzen den gaur, ostirala, 22:00etan, ikusteko aukera izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreak dira antzezlaren protagonista.

Ez da lehenengo aldia bi aktoreek elkarrekin lan egiten dutela, izan ere, *Mokozorrota* lanean ere elkarrekin aritu ziren. Hortaz, bi antzezlana "komedia erromantiko heterosexualak" dira, neska baten eta mutil baten arteko harremana kontatzen dutena. Bi aktoreen arteko harremana oholtzaren gainean ikus daiteke, eta Garmendiak aitortu zuenez, "batzuetan erronka bat da barreari eustea". Nahiz eta umorearen erabilera eta antzezlaren estruktura antzekoak izan, bi antzezlana ezberdin direla azaldu zuen Garmendiak.



LORETO AGIRRE

## Sorginen Gau Beltza

Urriaren 31n Gau Beltzaren edo Arimen Gauaren giroan Dantzarima Dantza Konpainiak 'Akelarrearen sua berpizten' ikuskizuna egin zuen Altsasuko Burunda frontoian. "Data aproposena" zela esan du Irantzu Gonzalez Azpiroz konpainiaren zuzendariak eta koreografoak, izan ere, tradizioak dio gau horretan heriotzaren eta bizitzaren arteko atea irekitzen dela.

## Egia ereiteko musika

Altsasuko auziak hiru urte betetzen dituenean, hainbat ekitaldi antolatatu dituzten Altsasun. Larunbatean, Txikitasunetik Egia erein musika jaialdi handia ospatu zuten Nafarroako hainbat gazte erakundek. 3000 pertsona baino gehiago bildu ziren Burunda frontoian eta lortiaiko zabalgunean. Frontoian punk musika izan zen nagusi, eta karpan reggae musika.



## Helena Tabernaren 'Varados' filma lortia kultur gunean


Aste honetako Iortia kultur guneari proiektatutako duen gaurkotasunezko filma zinemagile altsasuarraren errefuxiatuen inguruko film-dokumentala da. Gaur, ostirala, 22:00etan, eta etzi, igandean, 19:30ean, izanen dira emanaldiak. Grezian bizi diren "ahaztutako" errefuxiatuen istorioak jaso nahi zituen altsasuarrak.

## Zirku emanaldia La Trocola Circo konpainiaren eskutik

*Emportats* ikuskizuna izanen da igandean, 17:00etan, Iortia kultur gunean. La Trocola Circo konpainiaren familiarterko ikuskizun bat da eta hainbat diziplina bateratzen ditu: malabareak, objektuekin egindako lanak eta zuzeneko musika. Umorez eta energiaz beteriko ikuskizuna da eta zehaztasunaren mugak gainditzen ditu.



La Trocola Circo konpainia. UTZITAKOIA



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

## Kataluniako tsunami teknologikoa

Katalunian Gorenaren epaiaren kontrako mugimenduak hasi zirenetik, argi ikus zitekeen ez zuela orain arteko protesten eredu jarraituko. Protesta hauek Tsunami Democratic deiturikoak bultzatu ditu, hau da, instituzio, alderdi politiko edo plataformatik kanpo dagoen mugimendu herritar batek. Orain arteko "ez dakit zein egunean manifestazioa" gairantz gaitzen duena eta teknologia arma antolatzaile garrantzitsutzat erabili duena, eta erabiltzen ari dena.

Epaia atera aurretik Tsunami Democratic mugimenduak informazio bakar eta bitxi bat kaleratu zuen; Kataluniako herriari irriati bat, oinetako eroak, janaria eta ura beti gainean eramateko eskatu zioten, aurrerago jakingo zutela zeintzuk izango ziren hurrengo pausoak. Blockchain teknologiaren logika erabiliz

antolatatu zuten protesta; puzzle batean bezala, pertsona edo pertsona talde bakoitzak ekintzaren zati bat bakarrik jakingo zuen eta behin pauso guztiak emanda jakingo zen zein zen benetako ekintza. Honela, Prat aireportua blokeatzera iritsi ziren.

Ekintza hauek aurrera eramateko teknologia askeak erabili dira, logika merkantilista batetik kanpo dauden komunikazio sistemak. Hasierako egunetan Telegram aplikazioaren kanal baten bitartez bidali zituzten mezuak, 350.000 erabiltzaileraren iristen den kanala. Telegramen kodea askea da, baina informazioa gordetzen duten zerbitzariak ez dira. Gainera, sortzaileak argi utzi zuen ez zela inongo gobernurik bere zerbitzarietara sartuko. Bigarren pausoa, subirautea teknologikorantz izan zen.

Praten ekintzaren ondoren, eta fokua sare herritar honetan eta Telegram kanal honetan zegoenean, beraien aplikazio propioa argitaratu zuten. Retrosare teknologian oinarritutako aplikazio honek parekoen arteko komunikazioa, hau da, zerbitzaririk gabeko komunikazioa erabiltzen du, pertsonatik pertsonara bidaltzen da informazioa. Eta aplikazio hau erabiltzeko, kanalak ez bezala, QR kode bat beharrezkoa da, Tsunami Democratic sarearen arabera "zure konfiantzazko inguruan" aurkituko duzuna. Etengabe erabiltzen ari dira aplikazio hau, eta protestek, oraingoz behintzat, ez dute bukaerarik.

Espainiako Gobernuari hasieratik ez zaio gustatu Tsunami Democraticen antolatutako modu hau eta honengatik, web orria itxi egin dute, inongo epaileren baimenik gabe (asteazkeneko legearen aurretik, orain legala da) eta Githuben dagoen aplikazioaren kodea kendu nahi izan dute Guardia Zibilaren idatzi batekin, baina ez dute lortu.



Preso Politikoak Espainia Garaikidean erakusketaren zati bat Altsasuko Iortia kultur gunean.

# "Arteak lekuko izan behar du"

**SANTIAGO SIERRA** ARTISTA

'Preso Politikoak Espainia Garaikidean' Santiago Sierraren erakusketa mustu dute Altsasuko Iortia kultur gunean; besteak beste, Altsasuko auzia sartu du erakusketan

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Arte politikoaren arloan da ezaguna Santiago Sierra artista. 2018ko Madrilgo Arco azokan piztu zen eztabaida: *Preso Politikoak Espainia Garaikidean* lana mustu zuten, eta, ondoren, zentsuratu eta kendu behar izan zuten, antolatzaileen esanetan, "polemizarik ez sortzeko". As-teartean Altsasun mustu zuten *Preso Politikoak Espainia Garaikidean* erakusketa. Josep Maria Benet erakusketaren jabeak utzita izanen da erakusketa 30era arte Iortia kultur guneko erakusketa gelan. Zuri-beltzeko 24 argazki osatzen dute lana eta erretratatu aurpegiak pixelatuta agertzen dira. Argazkiek 74 preso politikori erreferentzia egiten diote, tartean Altsasuko auziko erretratu bat dago.

**Nola sortu zen erakusketa hau egiteko ideia?**

Arte estudioan konturatu ginen Espainian betidanik izan den idei politikoaren kontrako jazarpena azken urteetan handitzen ari zela. Lehen errepresioa, batik bat, eremu abertzale, anarkista eta Andaluziako jernalarien kontra zen. Nobedadea zen azken urteetan errepresio horrek ezkerreko edozein disidenteari eragiten ziola. Artistek ere gure lana egiteagatik, ez bazen Espainiako nazioaren aldeko txalo bat, salaketekin eta edozein motatako arazo legalekin mehatxatuak izan gara. Agian edalontzia gaintitu zuen tanta Madrilgo festa batzuetan txotxon-

**"BETIDANIK IZAN DEN IDEI POLITIKOEN JAZARPENA AZKEN URTEETAN HANDITZEN ARI DA"**

gilolarien atxiloketa izan zen, baina gertatu berri zegoen Alfonso auzia eta beste hainbat. Zerbait egin beharra zegoen.

**Nola izan zen sortze prozesua?**

Estudioan komunikabide alternatiboetako informazioarekin ikerketa bat hasi genuen. Hasi-tako auzien jarraipena egin genuen eta inplikaturako kolektiboekin eta partikularrekin harremana zuzena izan genuen. Urte batez hilabeteetan bi auzi publiko egiten genituen, seriea itxi arte. Seria itxi genuen lan urte bat bete genuelako, ez kasu berriak sortu ez zirelako.

**Zertan oinarritu zinen erakusketan egon behar ziren auziak aukeratzeko?** Europako Kontseiluko Legebiltzarrak preso politikotzat hartzen duena oinarritu gara: atxiloketa giza eskubideen oinarritzko bermeren bat urrututa eman bada; arrazoi politikoengatik, atxilo-

ketaren iraupena eta baldintzak ageriki neurritz kanpokoak izatea; arrazoi politikoengatik, beste pertsonekin alderatuz atxiloteta diskriminatzailea izatea, edo, azkenik, atxiloketa argi eta garbi bidegabeak izan diren prozeduren emaitza izatea. Erretratutako guztiek gutxienez baldintzaren bat betetzen dute.

**Erretratu bat Altsasuko auziari eskaini diozu. Zergatik sartu zenuen?**

Haien atxiloketak aurreko galderan aipatutako hainbat irregulartasunetan erortzen direnez, arrazoi politikoengatik zigortu dituztela argi geratzen da. Desproporzio eta menduko kasu argi bat da, akusatuen artean Ospa Eguna poliziaren aurkako mugimenduari lotutako aktibistak zeudelako.

**Nola iritsi zitzaizuen auzi honen inguruko informazioa?**

Hasiera batean beste edozein albiste bat bezala iritsi zen. Gero gertatutakoa hedabide independenteetan eta sare sozialetan argitzen joan zen. Akusatuen ingurua ere oso baliagarria izan da gertatutakoaren inguruko informazio zehatza izateko.

**Erretratatuak pixelatutak agertzen dira. Zergatik?**

Babesteko. Haien bizitzak nahiko erakutsi dituzte, eta ez diegu ikusgarritasun gehiegi emateagatik arazoak sortzea nahi.

**Zer esanahi du erakusketa honek? Zer kontatu nahi zenuen?**

Bere garaiaren testigantza ematen duen artea egitea gustatzen zait; sortzea tokatu zaion garai-ko araoetan aldeko jarrera hartzen duen artea. Ez zait arte dekoratiboa gustatzen. Lan hau zentzu horretan ulertu behar da.

**Arcon erakusketa zentsuratu zuten. Zure ustez, zeintzuk izan ziren benetako arrazoiak?**

Felipe VI.ak Espainiako Erregeak azoka mustu behar zuen, eta guk uste dugu hau egin zela haren argazkia nire obraren ondoan ekiditeko. Zentsurarekin sortutako efektua da gaur egun Espainian preso politikoa hitzak ohikoak izatea. Lehen oso bazterreko adierazpen bat zen, eta orain ez.

**Erakusketa Altsasun dago. Zergatik egon behar du Altsasun?**

Kaltetuak kontsolatzen laguntzeko balio dezake, elkartasun adierazgarri bezala. Gainera, jende guztiak ez dituela mass mediak kontatzen dituen istorioak sinisten erakusteko. Iritzi publikoari bizi garen benetako estatua erakusteko ere balio du.



## Artelan kolektiboa sortzen

'Preso Politikoak Espainia Garaikidean' erakusketa oinarri hartuta, Altsasuko Aske herri plataformak Santiago Sierraren obrari jarraipena eman dio, eta artelan kolektiboa sortu nahi dute. Ekintzan parte hartzeko norberak bere buruaren argazki bat egin behar du eta, ondoren, bi aukera daude: Alde batetik, Instagram duten argazkia sare sozialaren istorioetatik egin behar dute 'illusion of self' izeneko iragazkiarekin. Ondoren, @iortia\_kultura aipatu behar da eta #ALTSASU-PRESOS\_POLITICOS\_EN\_LA\_ESPAÑA CONTEMPORANEA traola idatzi behar da argazkia igo aurretik. Iortia argazkiak bere Instagrameko istorioetan konpartituko ditu, beraz, kontua irekita izatea gomendatzen dute. Bestetik, Instagram sare soziala ez dutenek norbere buruaren argazkia egin dezakete eta Iortia kultur guneko whatsappera 676 017 519 argazkia bidali Iortiatik zuzenean haien Instagramera igotzeko. Konpartitutako argazkiak, beraz, Iortiarenekin fatxadan egingo duten mosaikoaren parte izango dira.

# "Nire bizitza musika dela konturatu naiz"

June Mariñelarena Anguiano altsasuarrak 19 urte ditu, eta abeslaria da. Operacion Triunfo telebistako 'talent show'-eko casting-era aurkeztu zen Bilbon. 700 pertsona aurkeztu ziren eta 28 pasa ziren bigarren fasera, haietako bat June

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

## 1 Zergatik aurkeztu zinen Operacion Triunfo-ko casting-ean?

Txikitatik musika gustuko izan dut. Lagunak apuntatzeko esaten hasi ziren, eta gurasoek eta familiak ere animatu ninduten. Familiak asko laguntzen dit eta nigan konfiantza gehiago izateko esaten didate. Azkenean pentsatu nuen: "zergatik ez?". Ikasteko modu eta aukera oso ona iruditu zitzaidan. Gero galak egin behar dira, baina ez nuen horretan asko pentsatu. Banekien telebistan agertuko nintzela eta erronka bat bezala ikusten nuen.

## 2 Zure lehenengo casting-a zen? Nolako esperientzia izan da?

Nire lehenengo casting-a izan da, eta esperientzia bezala oso ona izan da. Oso polita. Casting bat izan arren, asko ikasi dut.

## 3 Nola izan zen prozesua?

Egin beharreko lehenengo gauza ilara zen. Azkenean epailleen edo musika adituen aurreira iristen zara eta haien aurrean *a capella* abestu behar duzu. Normalean, hiru abesti hizkuntza desberdinetan prestatzeko eskatzen dute. Nik bi abestu



June Mariñelarena Anguiano abeslari gaztea.

nituen: lehenengoa Morgan taldearen *Sargento de hierro* abestia eta gero Elle King abeslariaren *Ex's & Oh's* abestia. Pentsatuta neukan hirugarren abestia euskaraz zen, baina ez nuen abesteko tarterik izan. Hortaz,

gustatzen bazaie, edo, hobe esanda, zortea baduzu, pegatina jartzen dizute eta hurrengo fasera pasatzen zara. Bestela, ezer

## 4 Eta zuri pegatina jarri zizuten. Espero zenuen?

6259 zenbakidun pegatina jarri zidaten. Ez nuen espero. Gainera, egunean bi faseak egin behar genituen eta bigarrena ez nuen prestatu. Aurreko egunean ahotsik gabe nengoan larunbatean lehiaketa batean parte hartu nuelako eta katarroarekin elkartu zitzaidalako, eta desastre hutsa izan zen. Beraz, ez nuen bigarren fasea prestatu. Azkenengo momentuan bi abesti aukeratu eta egin nituen. Normalean abesti bat baino gehiago eskatzen badizute ona da, zu entzuten jarraitu nahi dutela esan nahi duelako. Nik ikusten nuen bost abesti egiteko eskatzen zioten jendea eta niri bi eskatu zizkidaten. Oso pozik.

## 5 Beraz, bigarren fase hori gehiago prestatu behar da?

Bai. Instrumentu bat eramateko aukera dago, normalean gitarra edo ukelelea, eta musika oinarri bat eramateko eskatzen dute. Esan bezala, pixka bat eromena izan zen eta gaztelaniaz Natalia Lakunzaren abesti bat kantatu nuen eta bigarrena berriro *Ex's & Oh's* abestia. Zortea ekarri zidala pentsatu nuen, eta aurrera.

## 6 Urduri zeunden?

Bai. Ni oso urduria naiz eta oso-oso urduri nengoan. Baina pentsatu nuen txorakeria bat zela, nolabait esateko. Ez zihokidala bizitza horretan. Beraz, urduritasun hori jan nuen.

## 7 Casting-ean lagunak egiteko tartea dago?

Bai. Gainera, lagun batek bigarren fasea pasatu zuen eta hirugarren fasea egin behar du. Ea zortea duen, pasatzea espero dut.

## 8 Berriz aurkeztuko zinateke?

Datorren urtean, beste OT bat egiten badute, bai. Arantza-txoarekin gelditzen zara. Orain nire casting-a ikusten dut eta hobe egin nezakeela iruditzen zait.

## 9 Zergatik izan abeslari?

Musika betidanik gustatu zait. Nik uste jaio nintzenetik. Eskolan abesteko eskatzen zutenen, nik abesten nuen. Musika barruan daramat. 12 urterekin edo kikildu nintzen eta musika alde batera utzi behar nuela pentsatu nuen. Baina orain hezi naiz eta ikusi dut musika nire bizitza dela, nire bizimodu dela eta musikarik gabe ezin naizela egon. Beraz, serioago hartzen hasi naiz eta musika klaseetan hasi naiz. Aurretik ez dut inoiz musika ikasi. Nire ama atzetik egon da esaten apuntatzeko, musika asko gustatzen zaidala eta egiteko, baina ez zen momentua. Oso lotsatia naiz, eta ni bakarrik kikiltzen nintzen.

## 10 Zizurren lehiaketa batean aurkeztu zinen, eta irabazi zenuen.

Bigarren saria irabazi genuen. *Ze artista!* deitzen zen lehiaketa eta talentuak erakusteko zen. Dantza taldeak, musika taldeak, musika teatroarekin... denetarik zegoen. Azkeneko momentuan erabaki genuen ere. Bi lagunekin aurkeztu nintzen eta zortea izan genuen.

## 11 Etorkizunerako, zer?

Oso galduta nago. Musika ez dut galdu nahi, baina oso bide zaila da. Musika talde bat sortzea asko gustatuko litzaidake.

## BAZKIDE ZOZKETA AZAROKO SARIAK:

### 1. SARIA:

EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

### 2., 3. ETA 4. SARIA:

DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

Ekain berri

gait

lacturale

CAMPING  
ARTAZA

g

gaztezulo

AQUARIUM